



gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



gizartea eta kultura
garaikidea

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Jar zaituz harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artistak: programacioncultural@azkunazentroa.eus

Deialdiak: deialdiak@azkunazentroa.eus

Jendearentzako arreta: info@azkunazentroa.eus

944 014 014

PLAZA ARRIKIBAR, 4
48010 BILBAO



Azkuna Zentroa Bilboko Gizarte eta Kultura
Garaikidearen Zentroa da. Artearen, artisten eta
publikoen komunitateen habitata.



- 7 *Saiakerak aurrera jarraitzen du.* Fernando Pérez. Azkuna Zentroko Zuzendaria
- 8 Gutun Zuria 2021/2020. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia
- 9 Komikteka zabalik, komikiaren espazio berria
- 10 Espazioak, jakintza eta publikoak lotzen dituen programazio hedatua
- 12 dendAZ. This is Basque Design. Azkuna Zentroaren saltokia
- 14 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

PROGRAMAZIOA

/Arte bisualak

- 18 *Mabi Revuelta. Acrómatica. Una Partida Inmortal.* Erakusketa
- 20 *Iván Gómez. La prospección de Kairós.* Erakusketa-proiektua
- 22 *Sra. Polarroiska. Emakume jakintsuen kontseilua.* Artista AZ-Kideak
- 24 *Mario Paniego. Espacio públic(itari)o.* Erakusketa. Komisario berriak
- 26 *Josune Urrutia Asua. Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer.* Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia
- 28 *Camila Téllez. Transición primaveral + Solasaldia Aimar Arriolarekin. Forma desira.* Arte bisualak / Ikertzaile AZ-Kidea

/Arte biziak

- 30 *Mal Pelo. On Goldberg Variations / Variations.* Dantza
- 32 *Amalia Fernández. Expografía retrospectiva.* Performancea
- 34 *Eraeran + Myriam RZM + Matías Riquelme & Fernando Ulzión + Mudoh.* Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa
- 36 *Eraeran + Jana Jan + EC + Killerkume.* Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

/Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 39 *Pier Paolo Pasolini. Poesía zinema egina.* Zinemateka
- 44 *BIdeOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira.* Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 46 *Paulino Viota. Contactos. Mayo de 1970 (1970).* Zinema





/Kultura digitalak

- 47 [Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua](#). Kultura digitalak

/Gizartea - Arte biziak

- 48 [La Nuit des Idées \(Ideien gaua\)](#). *Un planeta (en) vivo - Cercanos*
- 48 [Loraldia](#)

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

- 50 [Aimar Arriola](#). *Forma desira*. Ikertzaile AZ-Kidea
- 52 [Comienza el proceso creativo](#). Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia
- 54 [Artistas eta Ikertzaile AZ-Kideak](#)
- 56 [Oscar Gómez Mata](#). *Makers*. Artista AZ-Kidea
- 57 [Kinu](#). Tractora Koop. E. Kolektibo egoiliarra
- 58 [Artoteka](#). Arterako eguneroko espazioak. Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programa
- 59 [Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021](#)

HEZKUNTZA PROGRAMA

- 61 [Asier Irazabal eta Hernán Quipildor](#). *La llave del alma*. Tailerra
- 62 [Josune Urrutia](#). *Así me veo*. Tailerra
- 63 [Leire Urbeltz](#). *La probabilidad de un entre*. Tailerra
- 64 [Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak](#)

AZ

- 66 [Azkuna Zentroa argitalpenak](#)
- 68 [Espazio eta programazio irisgarriak](#)

AGENDA

- 70 [Agenda](#)
- 76 [Informazio orokorra](#)
- 78 [Azkuna Zentroa, gune segurua](#)





Saiakerak aurrera jarraitzen du

Saiakera hemen hasten da. Nekez sumatzen genuen **Gutun Zuria Bilboko Letren Jaialdiaren 2020ko** ediziorako aukeratutako titulua hain iragarlea izango zela.

Saiakera kolektibo gisa, normaltasun-itxura izanik, gizartean izaten diren aldaketetara hurbiltzeko asmoa genuen. Hain zuzen, pandemiak bizkortu egin du eraldatze-prozesu hori. Topaketa ezin izan zen egin, baina proiektuak irekita jarraitu du hilabete hauetan, denbora errealeko saiakera moduan.

Jaialdia, beraz, denboran eta forman banatzen da, iazko edizioa liburu bihurtuta eta programazio hibrido batekin. Programazio hibrido horretan, hitzak liburuen orrialdeak zeharkatuko ditu, gainerako arte-diziplinekin harremanetan jartzeko.

Era berean, **Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa** eraldatu egin da, prozesuak zabaldu ditu datorren ekainera arte, orduan, artistek publiko-komunitateekin partekatuko baitute beren lanen emaitza bienal batean. Prototipoak da gure programazioaren paradigma, publikoekin partekatuzeko pentsatutako arte-diziplinen arteko lotura, ez soilik emaitzaren unean, baita hura garatzean ere, etengabea baita, ez une bakar bat, eta aldatu egiten baita denbora eta baldintzak aldatu ahala.

Denboraldia nolakoa izango den erakusten duten bi adibide besterik ez dira horiek, 2020/2021 aldirako prestatutako

programaziokoak. Proposamenak birdimentsionatu eta birkokatu ditugu, kontratu eta proiektu guztiei eutsi, eta gure estrategia birdiseinatu dugu, publikoarekin elkartu ahal izateko eta kolektibo artistikoa gelditu ez dadin.

Azken hilabeteetan, zinemara, ikuskizunetara, liburutegietara... itzuli gara. Kultura berreskuratu dugu eta segurua eta beharrezkoa dela berretsi dugu. Ez soilik elkartzeko, hausnartzeko eta ezagutzeko gune gisa, baita gizartearen eta garapenaren aktibo gisa ere. Gure sarea osatzen duten profesionalak -musikariak, ikertzaileak, teknikariak, diseinatzaileak, itzultzaileak edo koreografoak-funtsezkoak dira gizarte honek aurrera egin dezan.

Baina formatu berrien saiakuntzarekin jarraituko dugu, formatu presentzialaren eta birtualaren arteko programazio hibridoarekin, esperientzia berriak, egiteko modu berriak, aukera berriak, pentsatzeko, sortzeko eta egoteko modu berriak eskaintzeko.

Komikteka zabalik, komikiaren espazio berria

Joan den uztailean hasitako eraldaketa-proiektuaren barruan, [Mediateka BBK-k](#) lanean jarraitzen du espazioak aktibatzen. XXI. mendeko 'teka' bat, sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimenezarako, 2019-2023 Programa Proiektuan eta Azkuna Zentroaren eginkizunean txertatuta, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko lotura gisa.

[Txikiteka](#), hauren eta gazteen sormenerako, esperimenezarako eta garapenerako gune berria, sortu ondoren, [Komikteka](#) jarri da abian: toki berezia funtsa kontsultatzeko –7.000 titulu baino gehiagorekin–, komikien edizioarekin lotutako jarduerak garatzeko, eta artistek eta sortzaileek beren proiektuak egin ahal izateko. Era berean, pandemiaren ondorioz atzeratutako [Komikien Nazioarteko Egondia Komiktekan](#) garatuko da.

Québec-eko La Maison de la littérature, Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image eta Azkuna Zentroaren arteko lankidetzeta-proiektua da. Hiru erakundeak elkarlanean ari dira programa hau aktibatzen, haren

bidez, hiru egilek beren proiektuak elkarrekin garatu ahal izango baitituzte hiru egoitzetan: Angoulême, Québec eta Bilbon. Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuen aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko.

Ezusteko loteak

Bestetik, [Mediateka BBK-k](#) material bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa mailegatzeko aukera berria jarri du abian, ezustekoarekin harritu eta hainbat autorerengana formatu desberdinetan hurbiltzeko, lote monografikoen bidez.

Al mal tiempo buena cara, Amor (im) posible, Forajidos de Leyenda, Historia Harrigarriak eta Lurraren Zaindariak tituluena atzean, helduentzako eta haurrentzako pack hauek daude. Horietako bakoitzak fikziozko eleberririk bat, komirik bat eta zinemarik CD bat eta musikarik beste bat ditu. Loteak [Mediateka BBK-ren](#) lehen solairuan daude.



Tallerra Peman Goniarekin Komiktekan egindako jardueraren irudia

Espazioak, jakintza eta publikoak lotzen dituen programazio hedatua

Mediateka BBK



2021eko lehen hiru hilabete honetako programazioak erakusketak-aretoak edo zinemako espazioak, diziplinak eta proiektuak [Mediateka BBK](#)-rekin lotzen ditu, eta, hainbat proiekturen bidez, aukerak sortzen ditu zentroko artista egoiliarren artean, eta publiko-komunitateekin partekatzen ditu. Dramaturgiaren agertoki bihurtutako eraikinak berak ere bere sekretu batzuk ezagutaraziko ditu.

[Mediateka BBK](#)-k indartu egin du Programa Proiektuaren ardatz estrategikoekin zerikusia duten tituluaren hautaketa, programazioaren jardura nagusiak osatuz. Edukiak artistekin eta komisarioekin lankidetzan estuan hautatzen dira, jarraibideak eta lan-ildoak zehazteko.

Izan ere, horixe da [Acromática. Una Partida Inmortal](#) (Akromatikoa. Partida Hilezkorra) erakusketaren kasua. Erakusketa sortzeko, [Susana Blas](#) komisarioak lau tituluaren irakurketa hartu du oinarritzat, eta horietako hiru [Mediateka BBK](#)-n eskainitako

bibliografiaren funtsa dira: Anthony Saïdy, *La batalla de las ideas en ajedrez* (Ediciones Martínez Roca, Bartzelona, 1973); David Shenk, *La partida inmortal: Una historia del ajedrez* (Turner Noema, Madril, 2006); Eduardo Scala, *El Juzgador de Ajedrez* (Árdora Ediciones, Madril, 2014); eta Antonio Gude, *Eso no estaba en mi libro de historia del ajedrez* (Almuzara, Kordoba, 2018).

Irakurketa horiek xakearekin zerikusia duten beste titulu batzuekin osatzen dira, besteak beste, David Shenk-en *Cómo un tablero y 32 piezas de madera tallada han ilustrado nuestra manera de entender la guerra, el arte, la ciencia y el cerebro humano* (Taurus, 2019) lanarekin. Azken lan honek xakearen garrantzia aztertzen du, duela 150 urte baino gehiago Londresen 'Partida hilezkorra' jokatu zenetik, partida horrek egituratzen eta zeharkatzen baitu [Acromática. Una Partida Inmortal](#) erakusketa.

Gainera, [Mediatekan Mabi Revuelta](#) artistaren lana sakonki markatu duten testuak aurkitu daitezke, hala nola Stanislav Lem idazlearen *Solaris* zientzia-fikziozko eleberria, artistak erakusketa-aretoan duen *Pearls* instalazioaren erreferentzia literarioa dena.

Marcel Duchamp-ek, erakusketa egituratzen duen beste ardatzetako batek, leku nabarmena du hautapen bibliografikoan, zeina artistaren beraren katalogoetako batzuekin osatzen baita.

Era berean, lehen hiruhileko honetan, ibilbide berri bat sortu da, [Zinemateka](#) eta [Mediateka BBK](#) lotzeko, [Pier Paolo Pasoliniri](#) buruzko zikloaren bidez. Zinemagile italiarrak poeta eta saiakeragile gisa egin zuen lana, haren ekoizpen zinematografikoan landutako gaiak, eta beste diziplina batzuetako artistentzat izan zen inspirazioa monografiko honen programa publikoaren parte dira.

Beste batzuetan, [Lantegia. Ideien laborategia](#) eremu esperimentalean dauden artisten arteko topaketatik sortzen dira Zentroko ibilbide berriak.

[Camila Téllezek *Transición primaveral* \(Udaberriko trantsizioa\)](#) ikerketa aurkeztuko

du, [Eszter Katalin](#) artistarekin lankidetzan egindako proiektua.

Jarduera hau marko bikoitzean sartuta dago: [Babestu, sorkuntza garaiakidea babesteko programa berezian](#), eta [Aimar Arriola](#) komisarioaren *Desira-forma bat* proiektuan. Proiektu horretan, [Arriolak, Ikertzaile AZ-Kide](#) gisa, sakon ikertzen du queer ikuspegiaren eta artearen arteko erlazioa, Zentroko programazioaren barruan.

[Gutun Zuriak, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiak](#), martxoaren 23tik 27ra bitartean egiten denak, denboran eta forman banatutako edizio bat proposatzen du, iazko edizioa liburu bihurtuta eta programazio hibridoarekin, non hitzak liburuen orrialdeak zeharkatuko baititu berriro, gainerako diziplina artistikoekin harremanetan jartzeko.

Alhóndigako eraikina bera esku-hartze artistikoaren euskarri izango da, eta bere txoko ezezagunenetako batzuk emango ditu argitara. [Amalia Fernández](#) artistak bere aurreko piezen zatiak berrikusten ditu leku horietan. Site-especific proiektua, gertatzen den lekuari erabat lotua, espazioa piezaren dramaturgiaren giltzarri bihurtzen duena.



Lantegia. Ideien laborategia

Euskal DisenuAZ topaketa berria

Otsailaren 11n, Euskal DisenuAZ programaren beste topaketa bat egingo da *Sorkuntza-prozesuak diseinuan* izenburupean, zeinean Ana Roquero, Mario Gaztelu eta Pilar Morquillas beren proiektuak aurkeztuko baitituzte.



Ana Roquero. *Cookplay*


Ana Roquero diseinatzaile industrialak *Cookplay* sortu zuen 2014an. Marka honen bidez, tresneriaren eta gastronomiaren mundura gerturatzeko eta 'mahai berriaren' ikuspegi disruptiboa eskaintzen du, erabilera eta ohitura berrietarako diseinu abangoardistak eskainiz.

Bere diseinuak nabarmenak dira eskura egokitutako forma ergonomikoengatik, erabiltzaileak objektuarekin duen harremanak baitu lehentasuna.

Mario Gaztelu. *Live Bilbao*

Prestakuntzaz autodidakta. Haren ibilbide artistikoak pintura, ilustrazioa, argitalpen-diseinua eta publizitate-grafikoa hartzen ditu barnean.

Gaur egun, branding eta komunikazio bisualeko hainbat proiektutan aritzeaz gain, *Live Bilbao* ekimen pertsonalean jarduten du, ilustrazioa eta afixa bateratuta, begirada geldia eta minimalista eskainiz, vintage zaporeko kartelismoaren artea aldarrikatzeko.



EUSKAL
DISEINUAZ
PUBLIKO-
KOMUNITATEEN
ETA ARTISTA-
KOMUNITATEEN
ARTEKO
LOTUNE GISA
PROIEKTATZEN
DA, SORKUNTZA-
PROZESUEN
ETA ARTISAU-
EKOIZPENEKO
TEKNIKEN
INGURUAN
JARDUTEKO.

Euskal DiseinuAZ

Otsailak 11, osteguna

dendAZ. This is Basque Design

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte



Pilar Morquillas. *Nueve botellas x metro*

Produktuaren diseinatzaile den aldetik, lehentasuna ematen dio ikuspegi kontzeptualari bere pieza guztietan, eta ideiak edo kontzeptuak gauzatzeko modu gisa ulertzen ditu estetika eta diseinua.

Nueve botellas x metro, proiektua aurkeztu du, zeinean, 33 cl-ko bederatzita botila berrerabiltzen baititu oihalezko metro karratu bakoitzeko. German Design Award 2021 saria jaso du diseinu jasangarriaren kategorian.

Artikuluak salgai [dendaAZ](#) saltokian eta [dendaz.azkunazentroa.eus](#) webgunean

 Bizkaia

EIDE
EUSKAL
DISEINUA

 GERMAN
DESIGN
AWARD
SOCIAL
2021

Diseinua eta arte-sorkuntza, izen propioarekin

dendAZ. *This is Basque Design*, Azkuna Zentroko denda, euskal diseinuari irekitako leihoa da, erosketa-esperientzia eta balio-kate gisa. Alhóndigako Atarian dagoen showroom honetan, euskal testuinguruko hogeita hamar bat diseinatzailek egindako produktu eksklusiboak aurkitu daitezke. Espazio honek erosketa sortzailea eta artisautzarekin eta iraunkortasunarekin konprometitua sustatzen du.

Gaur egun, dendAZ. *This is Basque Design*-en egile hauen produktuak eta proiektuak aurkitu daitezke: Abad, Aitor Saraiba, Amarenak, Ane Pikaza, Angélica Barco, Apetitu, Asier Irazabal & Hernán Quipildor, Cookplay, Eder Aurre, Elena Ciordia, Elena Sanz, Espacio Aerre, Estudios Durero,



FÁBdefÁB, Higi Vandis, IXI Wood, Katxi Kloting, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniego, MR Laspiur, NRT (No Rain Today), NUOC, Palo Palú, Pilar Morquillas, Proyecto Hemen, Susana Blasco, Yolanda Sanchez eta Ziriak.

I am a Basque Designer



dendAZ proiektuaren sorburua da Azkuna Zentroak inguruko sektore sortzaileak dinamizatzeko eta esperientzia artistikoen bidez hirian loturak sortzeko duen interesa.

Helburu horretan kokatzen da *I am a Basque Designer* ekimena. Produktu bakoitzaren ondoan jarritako informazio-fitxen bidez, bakoitzaren atzean dagoen proiektu pertsonala eta profesionala ezagutu daiteke. Hitzetan eta irudietan kontatutako istorioa da, eta sorkuntza-prozesuak eta tokiko eta artisautzako ekoizpen-modua hurbiltzen dizkigu, iraunkortasunarekin konprometitutakoa.

Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Mabi Revuelta
Artista bisuala



Susana Blas
Komisarioa



Mario Paniego
Komisarioa eta artista bisuala



Ivan Gómez
Artista bisuala



Laura Díez
Artoteka



Iranzu Guijarro
Artoteka



Sra. Polariska (Aláitz Arenzana eta María Ibarretxe)
Artista performatiboak



Oscar Gómez Mata
Artista eszenikoa



Marina Urrutikoetxea
Artoteka



Laida Lertxundi
Artista bisuala



Aimar Arriola
Ikertzailea



Camila Téllez
Artista bisuala



Ana Roquero
Diseinatzailea



Pilar Morquillas
Diseinatzailea



Mario Gaztelu
Diseinatzailea



Eszter Katalin
Artista bisuala



Elena Aitzkoa
Artista performatiboa



Maider Aldasoro
Artista performatiboa



Karlos Martínez B.
Artista audiobisuala



**Sahatsa Jauregi
Azkarate**
Artista bisuala



**Raquel Meyers eta
Borja Crespo**
Artista audiobisualak



Miriam Isasi
Artista bisuala



Irati Inoriza
Artista bisuala



Iker Vázquez
Artista bisuala



Josune Urrutia
Ilustratzailea



Leire Urbeltz
Ilustratzailea



Mal Pelo konpainia
(**María Muñoz eta Pep Ramis**)
Konpainia artistikoa



Itxaso Díaz
Bideosortzailea



**Asier Irazabal eta
Hernán Quilpidor**
Ilustratzaileak



Myriam RZM
Soinu-Artista



Amalia Fernández
Performer



Isabel de Naverán
Ikertzailea



Oier Iruretagoiena
Artista



Enrike Hurtado
Artista



Miguel A. García
Artista

PROGRAMAZIOA



Acromática. Una Partida Inmortal

ARTE GARAIKIDEA / ERAKUSKETA
URR. 14 > API. 11

Mabi Revuelta

*Acromática. Una Partida Inmortal
(Akromatikoa. Partida Hilezkorra)*

Komisarioa: Susana Blas

Tabacalera. Promoción del Arterekin (Madril) koprodukzioan

Acromática. Una Partida Inmortal (Akromatikoa. Partida hilezkorra) erakusketak **Mabi Revuelta** artistaren ibilbidea berrikusten du, eta, aldi berean, erakusketa honetarako ekoitzi duen *Acromática* azken lana du ikusgai. Arte garaikideko komisario eta historialari **Susana Blas** da erakusketaren komisarioa.

Xake-jokoaren dramaturgiaren bidez antolatua, ibilbidea 'Irekierarekin' hasten da. Lehen espazio horretan, *Natura hila perla beltzein* instalazioa dago, erakusketaren tonu poetikoa markatzen duen pieza eskultoriko berrikusia.

'Joko erdia' espazioan, *Acromática* osatzen duten obrak ikusiko ditugu, historiako xake-partidarik artistikoenetako batean inspiratuak: Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean 1851n jokaturako Partida Hilezkorrean.

Serie honekin Mabi Revueltak xakea eta haren arauak hartzen ditu erreferentziatuz, «eskulturaren, zinemaren, dantza garaikidearen, musikaren eta idazketaren bidez, jokoaren erregearen kontakizuna egiten saiatzeko, haren mugetatik hara joz, metafora artistiko, intelektual, beliko eta bitalen bidez artikulatuta».

Azken espazioan, 'Partida amaiera' izenekoan, *Denboraren lerroa* dago: artistaren ibilbidearen laburpena, xakearen lau arotan oinarritua: erromantikoa, zientifikoa, hipermoderno eta dinamikoa.

MABI REVUELTA. (Bilbo, 1967) 2016ko Gure Artea saria. Arte Ederak ikasi zituen UPV/EHU (1990), eta harrezkero bere lana erakusten hasi zen estatuko eta nazioarteko galeria, arte-zentro, azoka eta museotan; eta, aldi berean jardun du artista plastiko gisa, irakaskuntzan eta artearen pedagogia berriei buruzko ikerkuntzan. 2000tik 2003ra arte, New Yorken bizi izan zen, eta International Studio & Curatorial Program-en osatu zuen bere prestakuntza, Marcelino Botín Fundazioak 2003an emandako bekari esker. BBVA Fundazioaren Leonardo Beka jaso zuen 2016. urtean, Akromatikoa garatzeko, artistak Azkuna Zentroan duen erakusketa honi titulua ematen dion proiektua.

SUSANA BLAS BRUNEL. (Madril, 1969) Arte garaikidearen komisarioa eta historialaria. Ikus-entzunezko sorkuntzan espezializatuta, *Metrópolis* (tve2) telebistako kultura-espazioaren gidoilaria da 1999tik. Gaur egungo arteari eta feminismoei buruzko hainbat argitalpenetan idazten du, eta gai horiei buruzko hainbat ikastaro eta master eman ditu. GURTARRILA-berdintasunaren aldeko proiektuen kudeatzailearen kategorian, MAV saria (Mujeres en las ARTE BISUALAK) jaso du (2016), eta Blanco, Negro eta Magenta saria (2017). MAV-eko Aholkularitza Kontseiluko kidea, eta Cuencako Arte Ederren Unibertsitateko ARES proiektuko ikertzailea da. Hainbat bideo- eta erakusketa-ziklo komisariatatu ditu.

«ADOLF ANDERSSENEK ETA LIONEL KIESERITZKYK 1851N JOKATU ZUTEN PARTIDA BEZALA, ARTEA HILEZKORRA DELA USTE DUT, EZIN BAITA KULTURATIK ETA GIZARTETIK BEREIZI. HORREGATIK, NIRE USTEZ, BEHAR-BEHARREZKO ONDASUNA DA».
MABI REVUELTA

Urriak 14 > Urtarrilak 24

Erakusketa Aretoa
Sarrera dohainik

Ordutegia

Asteartetik igandera:
11:00 - 20:00

Bisita gidatuak (30'):

Ostegunero: 18:00 eta 19:00
Sarrera dohainik aurrez izena emanda: Az Info / 944 014 014
Gehienez: 5 pertsona

Koprodukzioa:



PROMOCIÓN DEL ARTE

Acromática. Una Partida Inmortal Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eta Tabacalera Promoción del Arte-ren (Madril) arteko koprodukzioa da, eta Madrilen La Principal-en egongo da erakusgai (2021).

LAGUNTZAILEA:



Erakusketarekin batera, *Acromática. Una partida inmortal* liburu-katalogoa dago. Argitalpena otsailean aurkeztuko da, eta **dendAZ** saltokian eta **dendaz.azkunazentroa.eus** helbidean egongo da salgai. +info: 66 orr.

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA-PROIEKTUA
AZA. 19 2020 > OTS. 21 2021

Iván Gómez

La Prospección de Kairós

3. kapitulua: *Las ruinas del momento*
(*Unearren hondakinak*)

HIRUGARREN KAPITULU
HONEK PROIEKTUAREN
PROZESUA EZAGUTARAZI
NAHI DU, HAREN
HONDAKINETATIK
ABIATUTA.



Iván Gómez. *La Prospección de Kairós*. 1. kapitulua, erakusketaren irekiera

La Prospección de Kairós (Kairosen prospekzioa) izenez Iván Gómez garatzen ari den proiektu artistikoaren hirugarren eta azken kapitulua urtarrilaren 28an inauguratuko da **Lantegia, ideien laborategiko 1 (bat) espazioan**. Proiektu hau lankidetzan egindako ikerketarako egitura metodologikoa da, tartean kontzeptua ikertzea du xede eta 2020an zehar artikulatu da zenbait kapitulutan: **0. kapituluan, *Zer da Denkraum?***, lantalde batek saiakuntza aktiboa garatu zuen; **1. kapituluan, *Denkraum*** aurreko hilabeteetan ikasitakoarekin eraikitakoa erakutsi zen eta **2. kapituluan, *Mnemosineren lanpara*** izenekoan, hitzaldi-jardunaldi batzuk egin ziren «tartean» auzia difraktatzeko.

Proiektuaren **3. kapitulua** Garaiko aurriak da eta ondorio moduko bat da. Lantalde berri batek praktika artistikotik irakurtzen du aurreko kapituluetakoa material sinbolikoa.

Iván Gómezen esanetan, «hirugarren kapituluak areagotu egiten du proiektuaren izenburua: *La Prospección de Kairós*. Horren bidez subjektu bihurtzen da latinezko prospectio ekintza, lurpeko ustiaketetan egiten diren lan guztiei erreferentzia eginez, aztarnategiak aurkitu nahi dira, balizko iraganak, eta egungo aztarnetan oinarritutako etorkizuneko aukera aztertu ere bai. Ekintza hori Kairos jainko greziarrari egozten zaio, «une egokia» esan nahi baitu bere izenak. Kronosek izaera kuantitatiboa du, baina Kairos jainkoak izaera kualitatiboa adierazten du, proiektuaren arduradunak azaldu duenez. «Hori oinarri hartuta artatu nahi dugu arkeologia garaikidea, arteak eta erregimen estetikoak duten interes bera duelako eta modernitatearen dikotomiak desegiten dituen errealitate bat adierazi nahi duelako, non ez dagoen aurkakorik, baizik eta tartean da dena».



IVÁN GÓMEZ (Irún, 1984) 'artista-etab' da, bere praktika hainbat diziplinatan hibridatzen da. Erlazioaren

gaia eta gai hori artatzeko moduez kezkatuz joan da pixkanaka eta bere praktika guztiak zeharkatzen dituen ardatza da. Nozio hori landu du zineman, praktikak artistikoan, diseinuan, komisario lanetan eta idazketan. Bere piezak eta proiektuak ikusgai egon dira MAMM museoan (Medellin), Vostell Malpartida museoan (Cáceres), La Casa Encendida (Madril), Artelekun (Donostia) eta Berlin, Brusela edo New Yorken, besteak beste.

////////////////////////////////////
2020ko azaroak 19 > 2021eko otsailak 21

Asteartetik larunbatera

16:00 - 20:00

Lantegia 2. 1 (bat) espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////
PROGRAMA

1. kapitulua (Erakusketa)

1. LAN-TALDEA

Karen Rivas, Andrea Álvarez, Iván Ureta, Lucía Pedregal, Nieves Barrenetxea, Bernarda B. Garmendia

////////////////////////////////////
2. kapitulua (Hitzaldiak)

Juan Llano Borbolla, Aurora Fernández Polanco, Iván Flores, Oriol Fontdevila, Emma Ingala, Bulegoa z/b

////////////////////////////////////
3. kapitulua (Erakusketa)

2. LAN-TALDEA

Xabier Barrutia, Silvia Cabrilla, Julen Ibañez, Idoia Leache, Malen Lopez eta Joey O.R.

Irekiera:

Urtarrilak 28, osteguna

16:00-20:00

Lantegia 2. 1 (bat) espazioa

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////
 ivangomez.net

ARTE BISUALAK / ARTISTA AZ-KIDEAK
URT. 19 (astr.)

Sra. Polaroiska

Emakume jakintsuen kontseilua

ARTISTA AZ-KIDEEN
PROGRAMAREN ESPARRUAN,
SRA. POLAROISKAK BERE
SORMEN-PROZESUA AMAITUKO
DU, ERREFERENTEAK SORTZEA
ETA EMAKUME HELDUEN
AHALDUNTZEA ARDATZ GISA
DUENA.

María Ibarretxe eta Alaitz Arezana. Emakume jakintsuen kontzeilua Luisa Menéndez-ekin



Sra. Polaroiskak (Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretxek), Azkuna Zentroko Artista AZ-Kideek *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua amaituko dute, hainbat esparrutako emakume helduekin eta profesionalekin izandako topaketen zikloaren azken saioarekin. Zenbait elkarrizketaren bidez, emakume horiek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dituzte, eta erreferente gisa agertzen dira.

Proiektuaren zati publikoa garatu ondoren, Sra Polaroiska lanean ari da *Emakume jakintsuen kontseiluari* amaiera emango dion koadernoarekin. Koaderno horretan, emakume horiek partekatutako jakinduria jasoko dute, zikloa osatzen duten saioetan artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera. [Abigail Lazkoz](#), [Conxita Herrero](#), [Bea Aparicio](#), [Juana García](#) eta [Naiara Goikoetxea](#) izan dira lehen bost saioetan jakintsu bakoitzaren ondoan izan diren ilustratzaileak.

Guztira, sei jardunaldi dira, hainbat gairi buruzkoak, Sra. Polaroiska azken urteotan garatzen ari den lan-ildoarekin bat datozenak, bereziki bideratuta dagoena gURTARRILA-ikuspegitik erreferenteak sortzera eta ahalduntzera.

Saioetan jakintsu hauek hartu dute parte: [Dolores Juliano](#) gizarte-antropologoa, Argentinan jaioa (1932) eta Bartzelonan erbesteratua Videlen estatu-kolpearen ondoren; [Amaia Lasa](#), poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; [Garbiñe Mendizabal](#), gURTARRILA-berdintasunerako aholkularia eta espezialista; [Luisa Menéndez](#), Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko Plataformako ekintzailea; [Adelina Moya](#), Historian doktorea eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakasle titularra; eta, azkenik, azken saioan gurekin izango dugun jakintsua, eta web orriaren bidez azalduko duguna.



MARIA IBARRETXE eta **ALAITZ ARENZANAK** eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimental, ekintzako artea, eta sorkuntza

eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

////////////////////////////////////

Urtarrilak 19, asteartea

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

 cargocollective.com/srapolaroiska

 [sra polaroiska](#)


ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
ABE. 3 2020 > URT. 31 2021

Mario Paniego

Espacio públic(itari)o

Komisario Berriak

ESPACIO PÚBLIC(ITARI)O LANAK
HAUSNARKETA KRITIKOA ETA
ERAIKITZAILEA PROPOSATZEN
DU, PUBLIZITATEAK
ESPazio PUBLIKOAN DUEN
PRESENTZIARI ETA HIRIKO
BIZITZA SOZIALEAN DUEN
ERAGINARI BURUZ



Espacio públic(itari)o

Mario Paniegok publikitateak eremu publikoan duen eragina berrikustea proposatzen du, urtarrilaren 31ra bitartean Kulturen Atarian ikusgai egongo den *Espacio públic(itari) o* erakusketaren bidez.

Komisariotza bultzatzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak duen **Komisario Berriak** programaren esparruan, Mario Paniegok gonbit egiten digu gogoeta egitera, gaur egun publikitatea zenbateraino dagoen hedatuta, «non ezinezkoa baita eguneroko bizitzan sortzen duen zaratatik urruntzea. Espazio publikoen eta pertsonalaren zati handi bat kentzen digu. Estimuluz betetzen gaitu eta geure buruaz husten», adierazi du.

Proiektu honen bidez, Mario Paniegok erakusten ditu São Paulo, Wrocław eta Grenoble hirietako eremu publikoan publikitatearen erabilera murrizteko abian jarri diren ekimenak, baita nola ezarri diren ere.

Bestetik, erakusketak biltzen ditu gai honen inguruan lan egiten duten **Laura Marte**, **Jason Eppink**, **Maidor López**, **Tony de Marco**, **Dobro** eta **Vernibus** nazioarteko kolektiboen eta artisten jarduera artistikoa eta aktibista, publikitate-euskarriak erabili baitituzte beren proposamenetarako edota eremu publikoa gogoeta soziala sortzeko. Erakusketa osatze aldera, **Irene Cuesta del Cura** eta **Eder Gutiérrezen** piezak izango dira ikusgai. Pieza horiek EHUKo Arte Ederretako eta IED KUNSTHALEko ikasleei irekitako deialdiaren bidez hautatu dira, proiektuan parte hartzeko.

Espacio públic(itari) o erakusketa-proiektuaren barruan, Mario Paniegok joan den azaroaren 27an, Black Fridayrekin batera, ekintza bat egin zuen Bilboko kaleetan eta Azkuna Zentroan, eta pantaila batzuetatik publikitatea hustea sustatu zuen, Vernibus artistak 2014az geroztik bultzatzen duen bezala, NOADDAY ekimenaren bidez, eta Buy Nothing Day mugimenduarekin bat etorriz.



MARIO PANIEGO Bilbo, (1978). Arte Ederretako lizentzia lortu zuen University of the West of England-en,

eta doktoregoko ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Ikasketak Aurreratuen Diploma eskuratu baitzuen (Gaur egungo Artearen Pentsamenduari eta Praxiari buruzko Ikasketak Aurreratuen Diploma). Aurrerago, Diseinuaren Kudeaketako Masterra (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Kultura Kudeaketako Masterra (Alcalá de Henaresko unibertsitatea) egin zituen.

////////////////////
2020ko abenduak 3 > 2021eko urtarrilak 31

Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

////////////////////
Mahai-ingurua
Espacio públic(itari) o
Urtarrilak 20, asteazkena

18:00
Mediateka. TK202
Sarrera dohainik,
azkunazentroa.eus webgunean
izena eman ondoren

Parte hartzaileak:

- **Pablo Vilá.** Comunitac-eko CEO-a
- **Tomás del Hierro.** Bilboko Udaleko Espazio Publikoaren arloko zuzendaria
- **Karmele Herranz Pascual.** Gizarte eta Ingurumen Psikologian doktorea eta Hiri Konforteko ikertzaile espezialista TECNALIA Research and Innovation-en.
- **Ula Iruetagoiena.** Arkitektoa eta EHUKo irakaslea

////////////////////
 mariopaniego.com

ARTE BISUALAK / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **ABE. 15 DIC. 2020 > MAR. 1 2021**

Josune Urrutia Asua

Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer

Interbentzio artistikoa

JOSUNE URRUTIA ASUAREN
PROPOSAMENAK ARRETA JARTZEN
DU PROZESU BANAKAKOETAN
ETA TALDEKOETAN, GORPUTZEN
ZAURGARRITASUNARI ETA
GAIXOTASUNARI ESPERIENTZIA GISA
ESANAHIA BERRIZ EMATEKO.



Calendario piezaren zaltia (Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer)

Josune Urrutia ilustratzaileak eraikinaren horma nagusian parte hartzen du *Fatxada* proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-rekin. Bertan, *Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer* (NIRE minbiziaren hiztegi entziklopediko ilustratu laburra) lanaren hiru hitzak proposatzen ditu, gaixotasunarekin duen prozesuaren testigantza autobiografikoa.

«Minbiziarekin dudaren esperientziari lotutako lan-ildoan, norberaren gaixotasuna irudikatzea edo berriz imajinatzea interesatzen zait», azaltzen du artistak.

Keinu horrekin, «eremu publikoa okupatzen dut intimoari, etxeokari edo pribatuari lotuta egon ohi den imajinario batekin, eta, aldi berean, gaixotasunarekin izandako esperientzien bestelako narratibak eta irudikapenak errebindikatzeko, terapeutikotasunetik edo metafora beliztetatik urrun, zeinak garaileak/garaituak, heroi eta heroinak bezalako ideiak sartzen baitituzte gure komunitateetan, eta, horren ordez, proposatzen dut gaixotasunarekin bizitzeko prozesu zalantzazkoari eta jarraituari ekitea, eta modu kolektiboak irudikatzea elkar zaintzeko eta elkarrekin bizitzeko».

Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer lana artistaren beste proiektu batzuen ernamuina izan da, hala nola Mediateka BBK-n aurkeztutako *Compendio colectivo sobre cáncer* –Vilanova Centre d'Art la Panera eta Arnau ospitalearekin batera egin da–, Babestu programako *Onko* proiektua edo gaur egun Angoulêmeko (Frantzia) Maison des auteurs-etik lan egiten duen *Hoy no es el día* komikia.

Irudia: Alejandro Náfria



JOSUNE URRUTIA. Artista, marrazkilaria, ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa honek interes berezia du marrazketa komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko baliabide gisa behar duten

prozesuetan eta tresnetan: medikuntza grafikoa osasun-munduan, graphic recording-a, mapa bisualak eta kaleko marrazketa kolektiboko prozesuak. Duela gutxi beka bat izan du Angoulêmeko (Frantzia) Maison des Auteurs-en, emakumeei, arteari eta minbiziari buruz duen komiki-proiektuarekin.

Hauetako haren argitalpenik esanguratsuenetakoa batzuk: *Compendio colectivo sobre cáncer* (2019), *Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer* (2017) eta *Así me veo* (2015).

////////////////////////////////////
2020ko abenduak 15 > 2021eko
martxoak 1

Arrikibar Plaza (Fatxada)

////////////////////////////////////

 josuneurrutia.com

 [josunene](https://www.instagram.com/josunene)

  [@mirardibujando](https://twitter.com/mirardibujando)

Josune Urrutia Asuak *Así me veo* tailerra emango du martxoan, autorretratua nork bere burua ezagutzeko prozesu eta marrazkiaren bidez begiratzeko esperientzia gisa lantzeko. + info: 62. orr.

ARTE BISUALAK / BABESTU / IKERTZAILE AZ-KIDEA
MAR. 4 (ostg.)

Camila Téllez

Transición primaveral (Udaberriko trantsizioa)

Eszter Katalin artistarekin lankidetzan sortutako proiektua
Proiekzioa ondoren, solasaldia Aimar Arriolarekin

JARDUERA HAU MARKO BIKOITZEAN SARTUTA DAGO: **BABESTU, SORKUNTZA GARAIKIDEA BABESTEKO PROGRAMA BEREZIA, ETA AIMAR ARRIOLA KOMISARIOAREN FORMA DESIRA** PROIEKTUAN. PROIEKTU HORRETAN, QUEER IKUSPEGIEN ETA ARTEAREN ARTEKO ERLAZIOA IKERTZEN DA, ZENTROKO PROGRAMAZIOAREN BARRUAN.

Camila Téllez. *Transición primaveral*



Ikerketa honetako elementuak banpirismoaren inguruan garatzen dira, queer/kuir, autobiografia eta gorputzaren oroimenari dagokienez. Hamabi urte zituela hilekoa izateak haurtzaroaren pitzadura ekarri zion, eta aurre egin behar izan zion esleituta zuen gURTARRILAA onartzeari; orduan, artista gaztea zela, vampir rola jokatzeko hasi zen, gaueko izaki baten portaera hartuz.

Ikerketa honetan, [Eszter Katalin](#) artista laguntzaileak egindako elkarrizketa batzuen bidez, artistak bere haurtzaroko esperientziaren remake moduko bat proposatzen du, bere banpirismoaren kontakizun pertsonala birkonektatzeko eta birkonfiguratzeko. Elkarrizketa horietan, galderak agertzen dira berriro irudi-ezari, erreflexuari, desioari, mugari, indarkeriari eta fikzioari buruz, performatibotasunetik erantzuteko.

Aurkezpen hau marko bikoitzean gertatzen da: [Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezian](#), eta [Aimar Arriola](#) komisarioaren *Forma desira* proiektuan. Proiektu horretan, queer ikuspegiaren eta artearen arteko erlazioa ikertzen da, Zentroko programazioaren barruan.

////////////////////////////////////

Martxoak 4, osteguna

18:30

Auditorioa


Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

Irudia: Eszter Katalin



CAMILA TÉLLEZ (Santiago, Txile, 1982). Bilbon bizi da. Diziplinarako artista. Arestian egindako lan artistikoan, hainbat identitate-adierazpen ikertzen ditu, bizi izandako espazioetan, baita ikusleekiko eta publikoarekiko harreman ikusezinez ere, lekuetako bitartekaritza-proposamen desberdinetan.



ESZTER KATALIN (Budapest, 1991) ikus-entzunezkoen artista da. Vienen eta Bilbon bizi da. Bere praktika ikuspegi queer eta feministatik garatzen du, subjektibotasunen irudikapen soziopolitikoak auzitan jarriz eta tenkatuz. Tabakalerako artista egoiliarra izan zen (2019) eta gaur egun Bilbao Arte Fundazioko egoiliarra da (2020).

ARTE BIZIAK / DANTZA **URT. 21** (ostg.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Mal Pelo

On Goldberg Variations / Variations

PROPOSAMEN KOREOGRAFIKO
HONEK APUSTUA EGIN DU
INTERPRETE BAKOITZAREN
MUSIKALTASUN PARTIKULARRAREN
ALDE, ETA TALDEAREN
ETA ESPAZIOAREN ARTEKO
ELKARRIZKETA ERRITMIKOAREN
ETA DINAMIKOAREN ALDE



On Goldberg Variations / Variations

Mal Pelo dantza-konpainia katalanak 30 urte daramatza ikertzen eta bere lengoia sortzen. Johann S. Bach Alemaniako konposatzailearen obrarekin duen harreman pertsonala *Bach* ikuskizunarekin hasi zen, eta 2004an mundu osoan zehar erakutsi zuen. Lehenengo harria izan zen, *Bach Project* erabateko murgiltze-prozesuaren zatietako bat. Trilogia bat da, eta J. S. Bachen musika aztertzea du ardatz, idazkera koreografikoarekin duen harremana aztertzeaz gain.

On Goldberg Variations / Variations ikuskizuna Dan Tepfer frantziar-amerikar piano-jole eta konposatzailearen *Goldberg Variations / Variations* proposamen musikalean oinarrituta dago, J.S. Bachen *Goldberg Bariazioak* interpretatzen baititu, harmonia horien gainean inprobisatutako bere bariazioekin konbinatuta.

On Goldberg Variations / Variations lengoaien ildoaz eraturako sare bat da, eta denek bat egiten dute J.S. Bachen obraren inguruan ehun bat osatzeko. Dantza, John Berger-en ahotsa, testu propio batzuk, soinu-bandaren soinu manipulatu eta foku-anitza, zuzeneko ahotsa eta bideo-proiekzioak elkartu dira, Mal Pelok J.S. Bachen unibertsora egin duen gerturatze hau eratzeko. Proposamen koreografikoak apustua egin du interprete bakoitzaren musikaltasun partikulararen alde, eta taldearen eta espazioaren arteko elkarrizketa erritmikoaren eta dinamikoaren alde.

Pieza hau *Steve Paxton: Drafting Interior Techniques* erakusketako programa publikoaren parte da. Erakusketa 2020ko otsailetik irailera bitartean izan zen, eta Steve Paxton koreografo iparramerikarraren lanari eta legatuari buruzko lehen atzera begirakoa izan zen.



MARÍA MUÑOZ eta **PEP RAMISEN** zuzendaritza artistikoa duen **MAL PELO** gune sortzaile bat da, partekatutako egiletza du, eta mugimenduari eta beste diziplina batzuekin duen elkarrizketari buruzko ikerketan oinarritu du bere ibilbidea. 1989az geroztik bere lengoia artistikoa garatu du, mugimenduaren, hitzaren, bideoaren, soinu-espazioaren eta espazio eszenikoari buruzko ikuspegi bereziaren bidez. Sorkuntza-lanean emandako hogeita hamar urtetan, Mal Pelok interesa izan du hainbat egilerekin lan egiteko, besteak beste, John Berger eta Erri de Luca idazleekin, eta Baró d'Evel, Andrés Corchero, Steve Noble, Lisa Nelson, Niño de Elche, John Edwards, Alia Sellami, François Delarozière eta Eduard Fernández. 2001az geroztik *L'animal a l'esquena* sorkuntza-zentroa zuzentzen dute Celràn, Gironan.

Erabili Bilbao Bona edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bona Az Infon sarrerak erosteko

Urtarrilak 21, osteguna

19:00

Auditorioa

15€ / 12€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: María Muñoz eta Pep Ramis

Zuzendaritzaren lankidetzak:

Leo Castro, Federica Porello

orkuntza eta interpretazioa:

Jordi Casanovas, María Muñoz, Zuriñe Benavente/Leo Castro, Pep Ramis, Federica Porello, Enric Fàbregas, Zoltan Vakulya

Musika: Dan Tepfer-en *Goldberg Variations / Variations* J.S. Bach-en *Variaciones Goldberg*-en inguruan

Poemak: John Berger eta Juan Gelmán

Testuak: Mal Pelo-ren edizioa, Tim Ingold, Franck Wilczek eta Mal Pelo-ren zatiak abiaburutzat hartuta

Iraupena: 70'

ekoizpena: Mal Pelo, Teatre Nacional de Catalunya, Dansa Quinzena Metropolitana de Barcelona e Icec-Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya.

Lankidetzak: L'animal a l'esquena y Théâtre Archipel de Perpinyà | Estreinaldia: Teatre Nacional de Catalunya, 2019ko martxoaren 28tik 31ra.

 malpelo.org

ARTE BIZIAK / PERFORMANCEA OTS. 4 > 6 (ostg. > lar.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Amalia Fernández

Expografía retrospectiva

ZENTROKO HIRU ERAIKINAK
FUNTSEZKOAK DIRA PIEZA HONEN
DRAMATURGIARAKO, SEI PERFORMERREK
ESPASIO HORIEK ERABILIKO BAITITUZTE
MUSEO-INSTALAZIOAREN FORMATUKO
HAINBAT OBRA AKTIBATZEKO, ZEINETATIK
PUBLIKOA IBILI AHAL IZANGO DEN
(SARTU-IRTENAK EGIN).



Expografía retrospectiva

Amalia Fernández artistaren *Expografía retrospectiva (Atzera begirako expografía)* proiektuak gogoeta egiten du antzerki-museoaren kodeen transposizioari buruz eta norbanakoa (kasu honetan, performerra) erakusketako objektu bihurtzen denean gertatzen denari buruz.

Site-especific proiektu hau guztiz lotuta dago gertatzen den tokiarekin, «arkitektura material eta fisiko bezala, lantoki moduan eta obra ekoizteko leku gisa», esan du [Azkuna Zentroko Ikertzaile Az-kide](#) den [Isabel de Naveránek](#).

Hainbat egoera-objektu dira, performerrek aktibatuak, eta horien edukia, instalazio-bertsioan, artistaren pieza eszenikoan atzera begirakoa da. Amalia Fernández aspalditik dabil gogoetan dagoeneko eginda dituen piezen inguruan. Artistak «aurre egiten dio, nolabait, obra berriak ekoiziz beti aurrerantz doan proiektzio-joerari, eta, horren ordez, landutako materialak berraztertu, eta horietan berritzailea dena ikusten du», azaldu du Isabel de Naveránek. «Lehenago arakatua zuen 'atzera joatea' da», gehitu du.

Proiektua garatzeko, Amalia Fernándezek egonaldia egin du urtarilaren 22tik otsailaren 6ra bitartean, eta Azkuna Zentroko hiru eraikinetan esperimentatu du, jendeak ezagutzen ez dituen korridorez, horma-arteaz eta txoko ezkutu ugariz beterik baitaude. Egonaldi horretan eta espazioen ikerketa horretan oinarrituta, leku horietan berriz bisitatu ahal izango diren haren lehenagoko piezen zatiak erabakiko ditu.

Horrela, ondoz ondokoak ez diren zazpi orduko iraupena duen pieza honetan, Zentroko hiru eraikinak piezaren dramaturgiarako funtsezko gune bihurtzen dira. Bertan, sei performerrek espazio horiek erabiliko dituzte museo-instalazio formatuko hainbat obra aktibatuzko, eta jendea haietan ibili ahal izango da (sartu-irtenak egin), museo erraldoi bat balitz bezala.

Irudia: Archivo Artea



AMALIA FERNÁNDEZ

(Granada, 1970) Madrilen bizi da 1998tik. Jende askorekin ikasi duen arren, Mónica Valenciano du bere irakasletzat; 11 urtez lan egin zuen harekin El

Bailadero konpainian 2005ean, bakarkako lanean hasi zen, besteak beste, pieza hauekin: *Matrioshka*, *Kratimosha* eta *En Construcción*; *El resistente y delicado hilo musical* eta *Expografía*. Horrez gain, elkarlanari ere ekin zion, hala nola Shichimi Togarashi eta Juan Dominguez artistekin eta Perrita China eta Nilo Gallegorekin. Amalia Fernández,aldi berean, artistei laborategietan irakasten aritzen da, eta lyengar yogako irakaslea ere bada.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

Otsailak 4 > 6
Osteguna > Larubata

Íbilbide performatiboa
15€ / 12€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOA

Egilea eta zuzendaria:

Amalia Fernández

Interpretatzaileak:

Catherine Sardella, Nines Martin, Javier Cuevas, Maia Villot de Diego, Nazario Diaz eta Amalia Fernández.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA **OTS. 10** (astz.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Eraeran + Myriam RZM + Matías Riquelme & Fernando Ulzión + Mudoh

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Eraeran



Myriam RZM. Foto: Gandy Ea

Matías Riquelme & Fernando Ulzión



Mudoh

Eraeran, Myriam RZM, Matías Riquelme & Fernando Ulzión eta Mudoh soinu-artistek Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentalako eta soinu-arteoko programan aurkeztuko dute beren lana, kontzertuen bidez soinu eta musika esperimentalak jorratzen dituen tokiko testuingurua ikusarazteko.

Eraeraneke, Miguel A. García artistak bertako soinu-artista batzuekin batera garatutako pieza elektroakustiko labor batzuk aurkeztuko ditu, sorkuntza- eta inprobisazio-tailerren osagarri gisa pentsatuak. Horietan, soinu-sorkuntza kolektiboa ikertzen da, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez, tradizioz erabilitako bitarteko akustikoak darabiltzaten musikariekin hasi, eta musikari elektronikoko esperimentalengana.

Myriam RZM soinu-performer eta -esperimentatzaileak DIY/DIT soinu-tresna autofabrikatuen bidezko inprobisazioan oinarritutako zuzeneko emanaldia eskainiko du. «2018tik, zuzeneko hau garatzen dut, DIY/DIT tresnekin egindako inprobisazioan oinarrituta, soinu eta performatibitate aldetik ditudan kezketara egokituta, fx eta feedback pedalekin uztartuta, mugimenduan dagoen gorputzarekin ekintzar/eragin-trukean», azaldu du artistak.

Matías Riquelme biolontxelo-jole txiletarrak eta Fernando Ulzión saxofoi-jotzaile bilbotarrak osatzen dute bikotea, eta inprobisazio librearen ikuspegitik soinuarekin egindako esperimentazioan oinarritzen dute beren lana. Aurkezpen bakoitza bakarra da, pieza bakoitza unean eta ingurunean inspiratuta dago. Oraingo honetan beren azken lana aurkeztuko digute, *La Trahison des Mots* (Sluchaj, 2020) izenekoa.

Mudoh (Aitor Monje) bere musikaren izaera instrumentalarekin zerikusia duen 'mudo' gaztelaniazko hitzaren eta berezko soinurik ez duen 'h' letraren arteko lotura da. Mudoh ambient-era bideratutako musika elektronikoa da, eta softwarean, musika-tresnen atzematean, landa-soinuetan eta edizio digitalean oinarritua dago.

Horrez gain, jardunaldia osatzeko, musika inprobisatuaren kontzertua izango da, gitarra espainiar amplifikatuaren manipulazioan oinarritua, kolpekatua, igurtzia eta hainbat objektu soinudunekin ukitua, eta analogikoki tratatua gitarra elektrikoaren berezko efektuen pedalekin.

Erabili Bilbao Bonua edo/eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

////////////////////
Otsailak 10, asteazkena

18:00

Lantegia 1

15€ / 12€ Az Txartelarekin

9€ / 7€ Az Txartelarekin (14 urte baino gutxiago eta 65 urte baino gehiago)

Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

////////////////////

Azkuna Zentroko Musika Esperimentalako Programa da Hotsetan, eta, haren bidez, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera eman, eta sortzaileen arteko elkarketa sustatzen dugu.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA **MAR. 17** (astz.)

eszenAZ

Azkuna Zentroko
arte eszenikoen
denboraldia
2020-2021

Eraeran + Jana Jan + EC + Killerkume

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Eraeran



Jana Jan

E.C. (Estanis Cornellà)



Killerkume

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteko programak martxoaren 17an jarraituko du aurrera, Eraeran, Jana Jan, EC eta Killerkumerekin, soinu esperimentalak lantzen duen tokiko testuingurua ikusarazteko.

Eraeran pieza elektroakustiko batzuekin itzuliko da; bertan, soinu-sorkuntza kolektiboa ikertzen du, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez.

Itziar Markiegi a.k.a. **Jana Jan** diziplina arteko artista da, marrazkilaria, zaratazalea eta performerra, hainbat artistarekin lankidetzaz grafikoa, soinu-lanak eta inprobisazioak egiten dituena. Soinuaren sorkuntza eta manipulazioa, metaketa eta feedbacka aztertzen ditu, inprobisazioaren bidez eta errorea sormenez erabiliz, Sintesi DIY eta gorputza sorgailu aktibo gisa baliatuz.

EC (Estanis Comella) artistaren praktika elementuak denboran eta espazioan antolatzean eta osatzean oinarritzen da; horretarako, lan-esparru zatikatuak eta esperimentalak sortzen ditu, berariazko bilbeak osatzen dituztenak, kategorizazioak eta generoak alde batera utzita, eta unitate gisa artikulatuta.

Killerkume 2012. urtean sortu zuten Bilbon **Mikel Vegak** eta **Joxean Rivasek**, eta hainbat urte daramatza Euskal Herriko zirkuitu independentean murgilduta, besteak beste, Loan, Mirage eta Ximel taldeetan parte hartzen. Europatik egindako hainbat bira dituzte bizkarrean, eta estudioko bi album (*Trautzer Blaster*, 2013an, eta *Industrial Sunbath*, 2016an); horrez gain, *White Noise Session* lana dute, 2018an argitaratua, Gaffer eta Repentino zigiluen bidez. Gainera, aurrean Karlos Osinagarekin grabatutako LP bikoitza argitaratuko dute.

Erabili Bilbao Bonua edo/
eta Kultura Bizkaia Aurrera
Bonua Az Infon sarrerak
erosteko

////////////////////
Martxoak 17, asteazkena

18:00

Lantegia 1

15€ / 12€ Az Txartelarekin

9€ / 7€ Az Txartelarekin (14
urte baino gutxiago eta 65 urte
baino gehiago)

Sarrerak: Az Info eta
azkunazentroa.eus

////////////////////

Azkuna Zentroko Musika Esperimentaleko Programa da **Hotsetan**, eta, haren bidez, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera eman, eta sortzaileen arteko elkarketa sustatzen dugu.



Pier Paolo Pasolini. ©1975. Cineteca Nazionale

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /
ZINEMATEKA **URT. 13 > MAR. 18**

////////////////////////////////////
Urtarrilak 13 > Martxoak 18
Asteazkenak eta ostegunak
Golem Alhóndiga Zinemak
5€ / 4€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian eta
golem.es
////////////////////////////////////

Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina

Italiako zinemagilearen titulurik enblematikoenetako batzuk aztertuko dituen ziklo monografikoa

[Zinematekak](#) hiru hamarkadatik gorako historia du Bilbon, eta zinema klasikoko eta sorkuntza garaikideko programazio egonkorra du Alhóndigan. Zentroko ikus-entzunezko programazioaren oinarritzko zutabeetako bat da, eta zikloek sakontzen dute hizkuntza zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoen jakintzan, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden lanen bidez.

Ezinbesteko filmen sorta duen [Zinemaren historiako 50 harribitxi](#) zikloa amaitu ondoren [Zinematekak](#) autore-sorkuntzetan jarriko du arreta berriro, zinemaren historiako zuzendari handien filmografiaren hautaketa baten bidez. Azkuna Zentroaren hamar urte hauetan, [Zinematekak](#) zinemagile handien atzera begirako saioak antolatu ditu, besteak beste, John Ford, Pedro Almodóvar, Samuel Fuller, Michelangelo Antonioni, Buster Keaton, Dorothy Arzner, Theo Angelopoulos, Juan Antonio Bardem, John Huston, Charles Chaplin eta Christine Vachon egileenak, eta 60.000 pertsona baino gehiago bertaratu dira.

Serieak [Pier Paolo Pasoliniri](#) eskainitako zikloarekin izango du jarraipena, XX. mendearen bigarren erdiko zinemagile eta poeta garrantzitsuenetako bat baita. Honako hau ez da [Zinematekak](#) zuzendari italiarraren filmak programatzen dituen lehen aldia. [Mamma Roma](#) (1962), bere maisulanetako bat, amaitu berri den Zinemaren historiako 50 harribitxi zikloko lanetako bat izan da; eta [Uccellacci e Uccellini](#) (1966) Bulegoa z/b kolektiboak 2014. eta 2015. urteen artean garatu zuen [Kontratu](#) programa publikoan sartu zen.

Ziklo monografikoa 2021eko urtarril eta martxo bitartean programatu da, eta bere ekoizpen zinematografiko zabaleko titulurik enblematikoenetako batzuk aztertuko ditu, 35 mm-tan proiektatuta.

PROGRAMA

Accattone (1961)

Urtarrilak 13, asteazkena / 17:30
Urtarrilak 14, osteguna / 19:00



Accattone egun osoa tabernaz taberna ematen duen bitartean, harekin bizi den Maddalena prostituta lanetan ibili beharra du hura mantentzeko. Maddalena atxilotu eta kartzelaratu dute, eta Accatonek, mantenurako modua galduta, miseria hutseko bizitza darama ezinbestean.

116' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Franco Citti, Silvana Corsini, Franca Pasut, Paola Guidi, Adriana Asti

- 1962. BAFTA sariak: Atzerriko aktore onenerako izendatua (Franco Citti)
- 1962. Karlovy Vary nazioarteko zine jaialdia: Zuzendari onena.

Il Vangelo secondo Matteo (1964)

Ebanjelioa Mateoren arabera

Urtarrilak 20, asteazkena / 17:00
Urtarrilak 21, osteguna / 18:30



Neorrelista ildoan baina Bibliako testuari jarraituta, Pasolini polemikoak Nazareteko Jesusen hurbileko erretratua egin zuen.

137' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Enrique Irazoqui, Margherite Caruso, Marcello

Morante, Susanna Pasolini, Mario Socrate

- 1964. Veneziaako Jaialdia: Epaimahaiaren sari berezia
- 1966. Oscarretarako 3 izendapen: JSB egokitua, jantzia Z&B, zuz. artistikoa Z&B
- 1966. New Yorkeko kritikarien zirkulua: Atzerriko film onenerako izendatua
- 1966. National Board of Review: Atzerriko film onenak

Uccellacci e uccellini (1966)

Txoritxoak eta txoritzarrak

Urtarrilak 27, asteazkena / 17:30
Urtarrilak 28, osteguna / 19:00



Gizon zahar bat eta semea landetan eta bideetan zehar ibiltzen dira, jende ezohikoa topatuz; besteak beste, hitz egiten duen bele bat agertuko zaie, eta San Frantzisko Asiskoa ere bai; belatzei eta usoei predikatzeko aginduko die.

87' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Ninetto Davoli, Totò, Femi Benussi, Rossana Di Rocco, Alfredo Leggi

- 1966. Canneseko Jaialdia: Urrezko Palmarako izendatua (film onena)

Edipo Re (1967)

Edipo errege

Otsailak 3, asteazkena / 17:30
Otsailak 4, osteguna / 19:00




Laio eta Jokasta Tebaseko errege-erreginen seme Edipo abandonatu egin dute umetan, profetia batean aita hilko duela jakin eta gero. Baina umea Korintoko erregeak salbatu eta adoptatuko du. Bere jatorria ezagutu gabe, Tebasera itzuliko da helduaroan.

104' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Silvana Mangano, Franco Citti, Alida Valli, Carmelo Bene, Julian Beck

- 1967. Veneziaako Jaialdia: Urrezko Lehoirako izendatua

Teorema (1968)

Otsailak 10, asteazkena / 17:30
Otsailak 11, osteguna / 19:00




Gaszte misteriotsu bat iritsi da senar-emazteek, semeak eta alabak osatutako goi mailako familia batengana, eta guztien jokaeira aldaraziz joango da. Pier Paolo Pasoliniren film polemikoa –Elizak moralaren aurkakotzat jo zuen–.

93' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Terence Stamp, Silvana Mangano, Laura Betti, Massimo Girotti, Anne Wiazemsky

- 1968. Venezia: Emakumezko aktore onenaren Volpi kopa (Laura Betti)

Medea (1969)

Otsailak 17, asteazkena / 17:00
Otsailak 18, osteguna / 18:30



Euripidesen tragedia greziarraren egokitzapen honetan, Pasinginik bi kultura bateraezinen arteko norgehiagoka tragikoa erakusten du: Medeaen mundu magiko irrazionala eta Jasonen mundu arrazionala. Maria Callas operako diva handiak zineman egindako lan bakarra izan zen.

110' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Maria Callas, Giuseppe Gentile, Laurent Terzieff, Massimo Girotti, Margareth Clémenti

Il Decameron (1971) Dekameron

Otsailak 24, asteazkena / 17:00
Otsailak 25, osteguna / 18:30



Pasinginik Boccaccioren *El Decamerón* bildumako ipuin erotiko jostagarriak birsortzen ditu, bere estiloan.

112' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Franco Citti, Ninetto Davoli, Pier Paolo Pasolini, Angela Luce, Patrizia Capparelli

• 1971. Berlingo zinema-jaialdia: Zilarrezko Hartza - Epaimahaiaren sari berezia

I racconti di Canterbury (1972) Canterburyko ipuinak

Martxoak 3, asteazkena / 17:00
Martxoak 4, osteguna / 18:30



Canterburyra doan erromes talde bat elkarri ipuinak kontatuz entretentzen ari da. Bitartean, eskribau batek gertakarien berri jasoko du, giza ahuleziak umorez eta ironiaz aztertuta.

109' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Franco Citti, Ninetto Davoli, Laura Betti, Josephine Chaplin, Pier Paolo Pasolini

Il fiore delle mille e una notte (1974) Mila gau eta bat gehiago

Martxoak 10, asteazkena / 17:00
Martxoak 11, osteguna / 18:30



Nur-er-Din printzea bere neska-laguna aurkitzen saiatzen da, bahitu egin baitute; hiri bat gobernatzea lortzeko asmoa du. Bizitzaren Trilogiaren hirugarren eta azken zatia da (*Dekameron* eta *Canterburyko ipuinak*), arabiar literaturako klasiko batean oinarritutako hamar bat istoriokoa, sexu xaloa, alai eta bekatu-sentimendurik gabea goraiapatuz.

129' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Ninetto Davoli, Franco Merli, Ines Pellegrini, Franco Citti, Tessa Bouche

• 1974. Canneseko Jaialdia: Epaimahaiaren Sari Nagusia

Salò o le 120 giornate di Sodoma (1975) Salò edo Sodomako 120 egunak

Martxoak 17, asteazkena / 17:00
Martxoak 18, osteguna / 18:30



Etxe handi batean, lau gizon prostituta izandako lau emakumerekin eta preso hartutako partisoanok diren edo partisoen seme-alabak diren neska eta mutil gazte talde batekin elkartuko dira. Etzeko guztiak jarraitu behar dituzte nagusiek ezarritako joko-arauak; urratzen dituenak heriotza-zigorra izango du.

117' / Italia / Z: Pier Paolo Pasolini / A: Paolo Bonacelli, Giorgio Cataldi, Umberto Paolo Quintavalle, Aldo Valletti

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ Info: azkunazentroa.eus

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

LABURDURAK

A: Aktoreak | Z: Zuzendaria

Irukiak: [Imdb](https://www.imdb.com/)

BideOtik

Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira

**BIDEOTIK. IKUS-ENTZUNEZKO
BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA**
PROGRAMAK IKUS-ENTZUNEZKO
ARTE- ETA KULTURA-SORKUNTZA
IKUSARAZTEN DU, SORTZEKO,
HAUSNARTZEKO ETA GIZARTEA
ERALDATZEKO TRESNA GISA,
MUGIMENDUAN DAGOEN IRUDIAREN
BIDEZ HIZKUNTZA BERRIAK ERABILIZ.



BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira otsailaren 9an, astearte, hasten da. Edizio berri honetan, besteak beste, film luzeak eta film labur dokumentalak, artxiboko irudiak dituzten piezak, memoria eta sorkuntza digitala izango dira ikusgai.


2021eko programa osatzen duten filmak 2020ko ekainaren 15etik urriaren 31ra bitartean Festhome plataformaren bidez irekitako deialdian aurkeztu diren 250 filmen artean aukeratu dira. Gaur egungo ikus-entzunezko praktikatik garatutako proiektu dokumentalak dira, eta esperientzia pertsonalekin, biografiekin eta bizitzako ibilbideekin eta istorioekin lotutako gaiak lantzen dituzte, feminismitik, dibertsitatetik eta arlo sozialetik hurbil dauden narrazio berriak kontuan hartuta, beren interes artistiko, esperimental eta berritzailegatik nabarmentzen direnak.

BideOtik programak bere balio diferentzialari eutsi dio, ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruko trukerako eta elkarriketarako elkargune gisa, eta kulturaz eta gizarteaz hausnartzeko eta eraldatzeko espazio modura. Hala, saioetan, autore bakoitzak bere pieza aurkeztuko du eta bere proiektuko prozesuak partekatuko ditu jendearekin.

////////////////////////////////////
Otsailak 9 > Martxoak 16
Astearte
18:30
Golem Alhóndiga Zinemak
4€ / 3€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemako txarteldegian
eta golem.es
////////////////////////////////////

PROGRAMA

1. saioa // Otsailak 9, astearte / 18:30



Aquí y allá (2019) Melisa Liebenthal

Aquí y allá etxean egoteak zer esan nahi duen galdetzen duen saiakera da. Errealizadoreak

argazkiak, mapak eta Google Earth erabiltzen ditu, munduan barrera dauden lekuak lotzeko, ez bakarrik iraganeko tokiak, baita bere familiaren migrazio-historia konplexukoak ere, Hitlerren garaiko Alemaniara eta Maoren Txinara doazenak barne hartuta. Errealia eta birtuala ere nahasgarriak dira: Hemen ala han? Agian bietan, aldi berean.

Argentina - Frantzia / Saiakera. 22'



Beyond the glacier (2019) David Rodríguez Muñiz

Beyond the glacier filmak Erdialdeko Asian urarekin dagoen gatazkari heltzen dio, Sir Daria ibaiaren

bilakaera konplexua aztertzen; ibaiak Tian Shan mendikateko glaziarretan jaio ondoren, 3.000 km baino gehiago zeharkatzen ditu, galdutako Aral itsasoan amaitu arte.

Espainia / Film laburra. Dokumentala. 18'



Yo fui Anderssen (2019) Raúl Riebenbauer

Aitak xakean jolasten irakatsi zidan, etxetik betiko alde egin baino lehentxeago. Ni umea

nintzen. Berrogei urte igaro dira, bera hil berria da, eta nik erabaki dut hari irabaztea lortu nuen egunean hasi zen erritua osatzea.

Espainia / Film laburra. Dokumentala. 14'



Vencejos (2020) Raúl Riebenbauer

2020ko martxotik apirilera bitartean, ia gizateria guztia etxean sartuta geratu da Covid-19 koronabirusaren

pandemiaren ondorioz. Amaiera ezezaguneko itxialdi honek erakutsi die askori leiho soil batek duen balio kalkulazina. Baina, denek ba al dute bat?

Espainia / Film laburra. Dokumentala. 6'

PROGRAMA

2. saioa // Otsailak 16, asteartea / 18:30



Cavalo (2020)

Raphael Barbosa eta Werner Salles

Arte-prozesu batean nahasirik, zazpi dantzari gazte beren sustrai etniko, kultural eta espiritualen bila murgildu dira. Gizakiaren sorkuntzari buruzko narratiba mitiko batetik abiatuta, zuzendariak jarraitu egingo diote dantzaren bidez beren burua aurkitu eta barnekoenarekin konektatu nahi duten gizonen eta emakumeen sorkuntza-prozesuari.

Brasil / Dokumentala. 84'

3. saioa // Otsailak 23, asteartea / 18:30



Syria (2018)

Alexia Gil eta Natalia Guerrero

Syria tilma gatazka armatuaren aurreko eta ondoko egoera islatzen saiatzen da, 'stopmotion'

animazioaren bidez eta ama bat protagonista del.

Espainia / Film laburra. Dokumentala. Stop Motion. 2'



Jo ta ke (2020)

Aitziber Olaskoaga

Errodaje-talde batek bilaketa etengabe bati ekiten dio oso polarizatuta dauden bi identitate nazionalen

arteko zirrikituak aurkitzeko. Ondoz ondoko ezetzek eta isilaldiek markatuko dute Euskal Herritik Mantxarako bidea, han baita Espainian eraikitako segurtasun goreneko lehen kartzela. Erantzunik gabeko eta galdera bakarreko bidaia: Nola irudikatu Historia irudiak ukatzen dizkigutenean?

Euskadi / Dokumentala. 40'



Espero (2019)


Loreto Saiz y Adrián Diaz

Sahararak 40 urte baino gehiago daramate Aljerian errefuxiatuta, Marokok okupaturako beren lurraldera itzultzeko

zain. POLISARIO frontearen gobernua gatazka bide instituzionaletatik konpontzen saiatzen den bitartean, saharar gazteak gatazka armatu batera itzultzearen alde daude. Itxaronaldian, zinema izango da beren arma bakarra.

Espainia - Sahara / Dokumentala. Opera Prima. 16'

4. saioa // Martxoak 2, asteartea / 18:30



Mudar la piel (2018)

Ana Schulz eta Cristóbal Fernández

Juan bitartekari bat da, ETaren eta Espainiako gobernuaren arteko bakea lortzen saiatzen aritu zena. Roberto zerbitzu sekretuetako espioia da, hainbat urtez Juanen bizitzan infiltratu zena. Mudar la piel Juanen -zuzendariaren aitaren- eta Robertoren -espiatu zuen gizonaren- istorioa da. Traizioa tartean egon arren, lagun onak dira biak. Halaber, Mudar la piel lana zinemagileek espioiarekin duten harremanaren kronika da, eta haren nortasun iheskorra harrapatzeko zailtasunarena.

Espainia / Dokumentala. 89'

5. saioa // Martxoak 9, asteartea / 18:30



Un día normal (2019)

Carmen PG Granxeiro

Goizean jaiki, ohea egin, gosaldu, dutxatu. Egun arrunt batean, emakume bat hil dute, emakumea izateagatik, eta mutil beltz

batek jipoi bat jaso du, beltza izateagatik. Baina egun horretan ere gerta liteke barrez lehertzea.

Galizia / Film laburra. Dokumentala. 24'



Pirate boys (2018)

Pol Merchan

Kathy Acker-en idazkerak eta Del LaGrace Volcano argazkilarri intersexualaren erretratu seminalak marko bikaina eskaintzen

dute trans subjektibotasuna eta queer zinema aztertzeko. Pol Merchanen dokumentu hibridoa erraz mugitzen da punk aroko dokumentaziotik generoaren azterketa performatiboago batera.

Alemania - Espainia / Film laburra. Dokumentala. 13'



A month of single frames (2019)

Lynne Sachs

1998an, Barbara Hammer zinemagileak arte-egonaldi bat egin zuen txabola batean,

ur korronterik eta elektrizitaterik gabe. Han egon zen bitartean, filmatzen aritu zen eta egunkari bat idatzi zuen. 2018an, Barbarak bere heriotzaren prozesua hasi zuen, bere artxibo pertsonala berraztertuz. Egonaldi horretako material guztia eman zion Lynne Sachs-i eta film bat egitera gonbidatu zuen. Lynnek Barbararen bakardadearen esperientzia aztertzen du.

Estatu Batuak / Film laburra. Dokumentala. 14'



ID copy (2020)

Candela Cienfuegos

Anekdotak pertsonal bat, dimentsio globala duena: milaka pertsona ez-bitarrak behartuta daude beren buruari ez dagokion NANarekin bizitzera.

Espainia / Film laburra. Dokumentala. 2'

6. saioa // Martxoak 16, asteartea / 18:30



Meseta (2019)

Juan Palacios

Film honetako pertsonaiak lurralde bateko gorabehera geografiko gisa agertzen dira, eta badirudi lur horretako kultura eta bizimodua denboran desagertzen ari direla. Lurralde hori da istorio honen benetako protagonista. Behaketa-tonuan eta kostunbrismo ia surrealista erabiliz, Espainiako landa-ingurunearen iraganean, orainaldian eta etorkizunean nabigatzeko pelikula-mapa bat da MESETA. Bidaia sensoriala Espainiako paisaia hutsean barrean.

Espainia / Dokumentala. 89'

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA).

+ Info: azkunazentroa.eus

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

Zikloko eskuliburua [45](http://Az Infon hartu, azkunazentroa.eus-en deskarga ezazu edo eskatu mezu elektroniko bat bidalita info@azkunazentroa.eus helbidera, eta harremanetan jarriko gara zurekin.</p></div><div data-bbox=)

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK **URT. 30** (lar.)

Paulino Viota

Contactos. Mayo de 1970 (1970)

Formas de navegación: Cabotaje (Nabigatzeko moduak: Kabotajea) lankidetzaren proiektuaren esparruan, fluentek eta Bulegoa z/b-k Paulino Viota zinemagilearen *Contactos. Mayo de 1970* (1970) aurkeztuko dute.

Contactos. Mayo de 1970 Paulino Viota zinemagilearen lanik garrantzitsuenetakoa da (Santander, 1948). Garai hartako Espainiako zinemagintzaren esparruan, film ezezagun bat, frankismoko gizarte zapaltzailearen metafora.

Stockhausen-en izen bereko musika-konposizioaren titulua hartzen du, egitura polisemiko bat sortu nahian, zeinak gai hauek aipatzen baititu, besteak beste: argazki-prozesuak, militante politikoaren figura eta egunkariaren hitzeko iragarkien atala.

Paulino Viotak aurkezpenean eta ondorengo solasaldian parte hartuko du.

////////////////////////////////////

Urtarrilak 30, larunbata

12:00

Auditorioa

Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////



Contactos. Mayo de 1970

fluent Bulegoa z/B

santander  bilbao

En colaboración con Azkuna Zentroa

Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua (SKG)

Urtarrilean, [Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua](#) proiektua jarriko da abian Mediateka BBK-n, komunitateko bizitzari buruz jendaurrean hausnartzea proposatzen duen ikerketa- eta ekintza-lana.

[Pezestudio.org](#)-ek eta [Colaboraborak](#) zuzenduta, Bilboko [Sorkuntza Kolektiboko Gailuak \(SKG\)](#) esparru horretan parte hartzen duten pertsoneri galdera zehatzak egiten dizkien online plataforma bat da, eta grafismoak sortzen ditu haien erantzunetatik abiatuta. Jarrera desberdinen konbinazioaren ondoriozko emaitza ekarpen bakoitzarekin eboluzionatzen duen lan grafikoa da, eta adimen kolektiboaren fruitua da.

Ekintza bidezko ikerketa-prozesu hau nola biziko gara elkarrekin? galderari erantzuna bilatzen saiatzen da, hainbat praktika kulturalen, diseinuaren, arkitekturaren, zientziaren eta teknologien (gogorak eta bigunak) ikuspuntutik landuz.

«Gure garaia gero eta konplexuagoa dela ikusita, krisi sistemiko sozio-politiko-kultural-ekonomiko-ingurumenekoak markatua, eta, are gehiago, egungo egoeran, [Transbióticak](#) alternatibak ko-produzitzen ditu, 'bizitza erdigunean jartzea' zer esan nahi duen aztertzeko; planetaren eta gorputzen mugez, erritmoez eta biziaren zaurgarritasunaz arduratzea proposatzen du», azaldu dute.

Proiektuak, ideietatik eta emozioetatik abiatuta, espazioei, giza harremanei eta biodibertsitateari buruzko gaietan sakontzen du, jendeak proiektuaren ikuspegiei buruz dituen iritziak agerian jartzeko: ekologikoa, lankidetzakoa, feminista, kode irekikoa eta esperimentalta.

[Transbiótica Mediateka BBK](#)-ren lehen solairuan dago, eta bertan kontsulta daitezke bibliografia-baliabideak eta proiektu honekin lotutako beste baliabide batzuk. Plataformara helbide honen bidez ere sar daiteke: www.transbiotica.org.

ONLINE
PLATAFORMA BATEN
BIDEZ, BILBOKO
SORKUNTZA
KOLEKTIBOKO
GAILUAK (DCC)
HAUSNARKETA
PUBLIKOA EGITEA
PROPOSATZEN DU:
NOLA BIZIKO GARA
ELKARREKIN?

Urtarrila, 2021

Mediateka BBK

 transbiotica.org

 pezestudio.org

 colaborabora.org

La Nuit des Idées (Ideien gaua)

*Un planeta (en) vivo - Cercanos [Planeta bizia(n)
- Hurbilekoak]*

Nola uztartu solidaritatea eta hurbiltasuna, planetak aurrean dituen erronka ekologikoen aurrean, horixe da Hurbilekoak topaketaren abiapuntua. Institutu Frantsesak antolatu du topaketa, *Ideien gaua* urteko ekitaldiaren barruan, aurten, *Un planeta (en) vivo [Planeta bizia(n)]* goiburua hartuta.

Ingurumena zaintzeko gizarteak dituen erronkei buruzko hausnarketa- eta eztabaida-mahai horretan, honako hauek parte hartuko dute: [Yves Cochet](#), Lionel Jospinen gobernuko Ingurumen ministroa, [Catherine Larrère](#), filosofoa eta Parisko Panteon-Sorbona Unibertsitateko irakasle emeritua; [Stella García Ardiles](#), Equo Berdeak alderdikoa; eta [Iñaki Barcena](#), ingurumen-politiketan aditua, ikertzailea eta UPV/EHUko irakaslea.

[Javier San Martín](#) kazetaria izango da moderatzailea.

Urtarrilak 28, osteguna

19:15

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte



Loraldia Festibala 2021

Martxoan [Loraldiaren](#) udaberri kulturalako ohiko hitzordua iritsiko da Azkuna Zentrora. Ekimen honen bidez, bat egiten dugu euskarazko kultura-ekoizpena sustatzeko eta hedatzeko Bilbon egiten den jaialdiarekin.

Azkuna Zentroan martxoaren 13an, 17an eta 20an izango da hitzordua, musika, hitza, zinema eta antzerkiko ikuskizunekin, euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta harekin gozatzeko

Martxoak 13

Larunbata

Martxoak 17

Asteazkena

Martxoak 20

Larunbata

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

Kontsultatu programa osoa hemen: loraldia.eus

LORALDIA
EUSKAL KULTURA GAUR

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK


Aimar Arriola

Forma desira

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

[Ikertzaile AZ-kideen](#) programaren barruan, Zentroak [Aimar Arriola](#) gonbidatu du Azkuna Zentroko programazioan queer/kuir ikuspegiak eta arteak duten harremanari buruz gogoeta egitera, [Forma desira](#) izeneko bere proiektuaren bidez.

Teoria kritikoaren eta gizarte-zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka



Manu Arregui. Con gesto afeminado (2011). Bideoaren Still-a

feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa bilatzen baitu. Baina, zer da queer/kuir perspektiba arteari eta haren espezifikotasunari dagokionez? Nola hurbildu formaren eta sentikortasunaren esparruetatik queer/kuir perspektibara?

Tokiko eta nazioarteko artistekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza-motatan gauzatzen da. Alde batetik, elkarrizketak eta idatzizko bestelako truke-motak daude ([Orriak](#)), [azkunazentroa.eus](#)-en aldizka argitaratuak. Argitalpen digital horietako bakoitzak diseinu grafiko berezia izango du, artista bakoitzaren asmoaren arabera egina. Bestalde, artista horien ([Ekintzak](#)) ekoizpen iragankorrak eta aldi baterako ekintzak daude, hala nola, tailer bat, proiektio bat edo performance bat egitea, zeinetan kultura presentziala eta elkartzeko aukerak lehenetsiko baitira. Era berean, [Ikertzaile AZ -Kidea](#) denez, Arriolak noizbehinkako ekimenak egingo ditu, hala nola prestakuntza-saioak, irakurketa-tailerak edo esku-hartze zehatzak, Zentroko programazioaren beste ildo batzuen barruan.

[Forma desira](#) proiektua 2020ko abenduaren 15ean hasi zen, hitzaurre batekin. Hitzaurre horretan, ikerketaren abiapuntuak eta asmo orokorrak azaldu ziren, eta [Manu Arregui](#) artistak hartu zuen parte proiektuaren lehen gonbidatu gisa. Estatuko ikus-entzunezkoen giltzarria da Arregui, eta haren lanak gorputzaren politikan eta arauz kanpoko identitateetan jartzen du arreta. [Forma desira](#) proiektuko bigarren gonbidatua [Camila Téllez](#) artista txiletarra da.

[Manu Arregui](#) eta [Camila Téllez](#) (proiektuko lehen bi gonbidatuei) dagozkien testu-formatuko trukeak ([Orriak](#)) Azkuna Zentroaren webgunean argitaratuko dira, euskarri digitalean, urtarrilaren eta martxoaren amaieran, hurrenez hurren.



Aimar Arriola. Arg.: Helena Goñi, 2019

Produktioei dagokionez ([Ekintzak](#)), martxoaren 4an [Transición primaveral](#) proiektatuko da, [Camila Téllez](#)ek bi esparrutan garatu duen proiektua, hain zuzen, [Forma desira](#) eta [Babestu](#), sorkuntza garaikidea babesteko programa bereziaren esparruetan. [Manu Arregui](#)ren ekoizpen iragankorra 2021eko lehen sei hilekoan aurkeztuko da.

Elementu errepikari gisa, [Forma desira](#) proiektuari lotutako programazio publikoak [Dogartzi Magunagoicoechea](#) artistak (Bilbo, 1991) sortutako girotze eszenografikoa du, Zentoraren enkarguz egina.

Martxoaren 4an [Transición primaveral](#), proiektatuko da, [Camila Téllez](#)en proiektua [Eszter Katalin](#) artistarekin elkarlanean. + info: 29. orr.

BABESTU, SORKUNTZA GARAIKIDEA BABESTEKO PROGRAMA BEREZIA

Babestu: prozesuan dauden proiektuak

Babesturen deialdi berezian hautatutako artista batzuk beren proiektuen sorkuntza-prozesuak lantzen ari dira dagoeneko [Lantegia](#). [Ideien laborategian](#).



Karlos Martínez B.

«Hasiera bat zulo entitatea bezalakoa da. Nolatan gertatzen da? Non hasten eta amaitzen da? Zatikatu daiteke? Zenbat denboratarako dago? Zer bilakatzen da, lehen zena izateari uzten dionean?

Ikasturte hasiera honetan, urte hasiera honetan, gauza asko berriak dira niretzat, besteak beste, AZko 1. Lantegiko egoiliar gisa dudana. Espazioan, erakundeetan, etxean, bertan dauden pertsonekin kokatzea, proiektua espazioan, erakundeetan, etxean, bertan dauden pertsonentzat kokatzeko».

Karlos Martínez B.

Plan K. Gut

Ikus-entzunezkoa

«Ikus-entzunezko formatua duen proiektua harremanaren bidez lantzen ari gara. Nik performancetik abiatuta, eta Eszterrek kameratik abiatuta. Kontzeptuzko gaietan, proiektua banpiroaren irudian oinarrituta dago, queer ikuspegitik.

Alde horretatik, lanean ari gara espazioak aukeratzeko, ulertuz zer lekuk eskaini ahal digun, eta zer duen eskaintzeko. Grabazio ugari egin dugu Az-ko hainbat espaziotan, ahalegindu gara Zentroko arkitekturetan intimitate-espazioak aurkitzen, eta zaila izan da espazio intimorik aurkitzea».

Camilla Téllez

Eszter Katalinekin lankidetzan

Transición primavera

Performancea eta ikus-entzunezkoa



Eszter Katalin y Camilla Téllez



«Duela hilabete batetik hona, Az-ko BABESTU egonaldiak Zentroan egiten dudan ikerketa praktikoa bultzatu du. Estudioan egunero egoteak harremanak eta motibazioa errazten ditu, proiektatutako lankidetzari begira. Erlazio-baldintzak hobetu ahala, segurtasunagatik, aurreikusitako plangintza garatzen dut, eta apunteak hartzen ditut Portugaleteko igeriketa sinkronizatuko taldearekin, eta lamiak "ikusi" diren lekuak egiaztatzen ditut; leku horiek mito bihurtzen ditugun irudiekin lotuta daude, gure egungo zibilizazioaren bilakaeran».

Irati Inoriza

Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo

Performancea

«Azkuna Zentroko lehenengo fase honetan, nire proiektua esperimintatzeko eta ikertzeko prozesuan nago. 'Artefaktu' berriak sortzen lan egiten dut, desira komunak eta intimoak kanporatzeko, pribatura eta ezkutura eramanda. Aldez aurretik sortutako piezez gain, gaur egun sorkuntza berri bat lantzen ari naiz, bi pertsonarentzako joko-formatuan, non batek irabazi eta besteak galdu egiten duen. Denbora eta espazio honetan, proiektuaren oinarri teorikoa ere lantzen dut, eta izango duen formari buruz hausnartzen dut, hasi performatibotik eta antzerkira».

Maidar Aldasoro

Eterno Noeterno

Bideo-performancea



Topaketa-elkarrizketa

Otsailak 18, osteguna

18:30. TK202

Camila Téllez & Eszter Katalin, Elena Aitzkoarekin

Camila Téllez & Eszter Katalin eta Elena Aitzkoa artistek topaketa/elkarrizketa batean aurkeztuko dituzte beren proiektuak, hala esperientziak trukatu eta hitz egingo baitute beren sormen-prozesuen inguruan. Bi hilean behin egiten diren topaketa hauen helburua da Azkuna Zentroko artista egoiliarren lana hurbiltzea eta partekatzea.

Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa bereziaren bidez hautatutako proiektuak profil eta ibilbide desberdinetako artistek zuzentzen dituzte. Horiek guztiak programazioarekin lotuta daude eta beti dute alde publiko bat, bai egindako lanaren bidez, bai sorkuntza-prozesuen bidez.

ARTISTA AZ-KIDEAK

Sra. Polaroiska. *Emakume jakintsuen kontseilua*

Sra. Polaroiska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), Az-Kideak Artistas Asociadas a Az, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduz zuzentzeko bere sorkuntza-prozesua gauzatzen ari da. Gaur egun, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektua garatzen ari dira; belaunaldien arteko topaketa bat, hainbat arlo sozial eta profesionalean erreferente diren adineko emakumeekin.



Alaitz Arenzarak eta María Ibarretxek eratzen dute **SRA. POLAROISKA** kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Arteak saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jardueraren onspen gisa, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

cargocollective.com/srapolaroiska - [sra polaroiska](https://www.instagram.com/srapolaroiska)

Oscar Gómez Mata *Makers*

Oscar Gómez Matak, Az-Kidea Artista Asociado a Az-k, *Makers* pieza sortzeko lanean jarraitzen du, uda hasieran Zentroan eta orain La Chaux-de-Fonds-eko (Suitza) TPRn (Théâtre Populaire Romand) egonaldia izan ondoren.



OSCAR GÓMEZ MATA (Donostia, 1963) Suitzan bizi da eta bertan lan egiten du, Genevan. Aktorea, zuzendaria, egilea eta eszenografoa da. Espainian hasi zen antzerki-jardueretan, 1987an Legaleón-T konpainiaren sortu baitzuen beste kide batzuekin batera, eta ikuskizunak egin baitzituen haiekin 1996ra arte. 1997an, L'Alakran konpainia sortu zuen Genevan, eta zuzendaritza, sorkuntza, dramaturgia eta zenbait ikuskizunetako testuak egin ditu bertan. Suitzako antzerkiko sari nazionala eskuratu zuen 2018an.

[alakran.ch](https://www.alakran.ch)

Laida Lertxundi. *Escuela efímera*

Laida Lertxundi Az-Kidea Artista Asociado a Az izango da 2021ean eta 2022an, eta *Escuela efímera* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.



LAIDA LERTXUNDI Gure Arteak 2020 Saria irabazi zuen. Arte Ederren Masterra egin zuen Kaliforniako Arteen Institutuan, eta BFA programa Bard College-n. Bakarkako lana erakutsi du nazioarteko museo, jaialdi eta galerietan. Arte Ederretako eta Giza Zientzietako irakaslea da Pasadenako Art Center College of Design-en.

[laidalertxundi.com](https://www.laidalertxundi.com)

IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Aimar Arriola *Forma desira*

Aimar Arriola Az-Kidea Investigador Asociado a Az da. Apiriletik aurrera eta bi urtez, *Forma desira* proiektuan jardungo du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikogoekin.

Irud.: Helena Goñi 2019



AIMAR ARRIOLA (Markina-Xemein, 1976) komisarioa, editorea eta ikertzailea da. Doktorea da Londresko Goldsmiths Unibertsitateko Kultura Bisualen Saitetik. Erakusketa eta programa publikoak antolatu ditu, besteak beste, toki hauetan: MACBA; The Showroom, Londres; Centro Centro, Madril; Bilboko Arte Ederren Museoa; eta Tabakalera, Donostia. Gaur egun, Eremuak programako Batzorde Teknikoko kidea eta Az-Kideak programako ikertzaile AZ-Kidea da.

 arriolaaimar -  aimar.arriola

Isabel de Naverán *La ola en la mente (Uhina gogoan)*

Isabel de Naverán izango da Ikertzaile Az-Kide berria 2021etik aurrera. Artean doktorea da UPV/EHUn, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzean ikertzen ari da, kuratoretzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. *Ikertzaile AZ-kide* gisa, *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoan oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

Irud.: Matxalen de Pedro



ISABEL DE NAVERÁN (Getxo, 1976) 2010ean, Leire Vergara, Miren Jaio eta Beatriz Caviarekin batera 'Bulegoa z/b' sortu zuen, eta proiektu horri lotuta egon zen 2018ra arte. 2017az geroztik, Reina Sofia Museoko zuzeneko arteen kuratoretzaz arduratzen da. *Elipsiak* dantza-zikloaren komisarioa izan zen Azkuna Zentroan (2016-2018), eta 2019an, Julia Morandeararekin batera, *Un lugar en el que poder hundirse en Getxo* lanaz. 2020-2021 bitartean, honen komisarioa da: *Irudia Aztertze XXVI. Jardunaldiak: Por qué cuerpos, Para qué historias*, Dos de Mayo Arte Zentroa, Móstoles, Madril. Denborari buruzko kezka dago bere ikerketen azpian da, hasi koreografia hedatuen denbora zinematografikoa ekoizteari buruzko doktorego-tesitik (2010) eta gorputz transmisioan eta denbora historikoaren kontzeptua praktika iragankor eta iheslarietatik berrikusten dituzten egungo proiektuetaraino. 2016. urteaz geroztik, *Envoltura*, historia eta sinkopea proiektua garatzen du, eta horrekin ari da gaur egun ere.

Artista eta Ikertzaile AZ-Kideak programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.

ARTISTA AZ-KIDEA

Oscar Gómez Mata

Makers

Oscar Gómez Mata bi proiektu garatzen ari da *Artista AZ-Kide* gisa: batetik, *Makers* eszenaratzea, alde filosofikoa, poetikoa eta komikoa nahasten dituen ikuskizuna, bizirik dirautenentzako eskuliburu moduko bat, errealitatean egiten dugun iragaitari irtenbideak eman nahi dizkiona; eta, bestetik, *Deriben katalogoa*, Mediateka BBK-ri buruzko proposamen batekin urtarillera arte zabaldu dena.

Argia egiteko ikertzea

Oscar Gómez Matak eta Juan Loriente aktoreak *Makers* ikuskizuna sortzen jarraituko dute, eta ikuskizuna apirillean estreinatuko da Zentroan. Artistak gogorazten duenez, «2020an gertatutako guztia bezala» prozesua gorabeheratsua izan da, ezin izan baita iazko urrian eszenaratu, horrela aurreikusita egon arren. «Entseguko asteak bertan behera utzi

behar izan ditugu, egutegiko beste egun batzuetara eraman, eta gure lana maker-aren esaerara egokitu behar izan dugu: Daukagunarekin konpondu», esan du.

Makers-en funtsezko eginkizunetik sortzen da pieza: argia egiteko ikertzea. «Detektibeak gara, sentipenaren azpian hautematen dena bilatzen, errealitateari irtenbide poetikoa aurkitzen saiatzen gara», azaldu du Oscar Gómez Matak. Ondoriozko ikuskizunean, «bikote komiko» honek gai klasikoak jorratzen ditu, hala nola maitasuna, denbora eta argia, eta alde filosofikoa eta poetikoa nahasten ditu umore hunkigarriaz. Horrela, beste ikuspegi bat ematen digu ertz lausoak eta zalantza-koak dituen garai hauskortu honen egunerokotasunari buruz. Aktoreak zuzentzen duen L'Alakran konpainiaren lanen ildoko ikuskizuna.

Juan Loriente eta Oscar Gómez Mata. *Makers*



Deriba berria Mediateka BBKn

Makers-ekin batera, Oscar Gómez Mata *Deriben katalogoa* garatzen ari da *Espe López* artistarekin. Oinez ibiltzeko ekintzaren bitartez hiri-paisaiaren eta parte-hartzailearen barne-biziaren artean loturak finkatzeko asmoa duten praktikak dira deribak. Proiektu honetan, hainbat proposamen dituzte noraezean ibiltzeko, eguneroko hiri-paisaiak behatzeko eta esploratzeko asmoz. *Eguzkiari jarraitu*, *Gauza batek bestera eramango zaitu beti*, *Turistaren ikuspegia*, *Isiltasuna etxean*, *Detektibe* eta *Borges*en denbora dira katalogo hau osatzen duten deriben tituluak, eta Az Infon eska daitezke, Kulturen Atarian dagoen jendearen arretako gunean.

Urtarilean amaituko da proiektua, *Mediateka BBK* ardatz duen beste deriba batekin: *Ariadnaren haria*. Zoria, sinkronizitatea eta serendipia suspertzeko beste ibilbide bat, pentsamendua mugitu eta ezezagun denarekin topo egiteko.

KOLEKTIBO EGOILIARRA

Kinu

Tractora Koop. E.

Tractora Koop.E. artisten kooperatibako Usue Arrieta eta Ainara Elgoibar *Kinu* proiektua garatzen ari dira *Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliar* gisa. *Kinu* artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagunea, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko. Proiektuak hiru parte ditu:

Aurkezpen publikoa:

Hiru hilean behingo saioen hasieran, artista gonbidatuaren lana proiektatu eta jendaurrean aurkeztuko da, eta, ondoren, mahai-ingurua egingo da. *Kinu* proiektua *Kinu#1* saio pilotuarekin hasi zen, Elena Aitzkoa artistaren eskutik; irailan, AZko kolektibo egoiliarra zela, *Kinu#2* saioa izan zen, *Maddi Barber* gonbidatuarekin;

azaroan *Kinu#3* saioa izan zen, *Sabine Groenewegen* zinemagileari eskainia, eta *Kinu#4* saioak emango dio jarraipena proiektuari, 2021eko bigarren hiruhilekoan.

Lantaldea:

Aurkezpen publiko bakoitzaren ondoren, artistak zuzendutako saio bat egiten da lantalde egonkor batekin (*Lantaldea*). Talde horren dinamika gonbidatutako pertsona bakoitzaren neurria diseinatzen da. *Lantaldea#1* eta *Lantaldea#2* lan-saioek filmatzea izan zuten ardatz, eta ikus-entzunezko pieza bat izan zen emaitza. 16 mm-tan filmatutako pieza bat, kameran muntatua, errebelatua eta saioa egindako egunean bertan proiektatua. *Lantaldea#3* saioak beste batzuen materialekin film bat egiteko ekintza izan zuen ardatz, eta Sabine Groenewegenek emandako master class-etik abiatu zen. *Lantaldea#4* 2021eko bigarren hiruhilekoan egingo da.

Distirak:

Azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea osatzen duen pertsona batek testu bat egiten du (*Distirak*), lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko. Azkuna Zentroan egin zen lehen saioan, *Ander Pérez* ikus-entzunezko artistak egin zuen *Distirak#2* testua. *Distirak#3* testuaz *Pablo Marte* artista arduratu zen. *Distirak#4* 2021eko bigarren hiruhilekoan garatuko da.



Kinu#3

Kolektibo Egoiliarrak programaren bidez, hurbileko kolektiboek laguntzen diegu, arte-hizkuntzekin eta kultura garaikidearekin egiten duten lanean, era eta ikuspegi askotatik, eta elkarren arteko konplizitatea bultzatzen dugu kultura-programazioa antolatzeko orduan.

Artoteka

Arterako eguneroko espazioak

Artoteka, arte garaikideko obrak mailegatzeko eta artisten eta herritarren arteko bitartekaritza egiteko plataforma, **Mediateka BBK** erakusketa-gunean izango da abenduaren 1etik aurrera, **Lanean. Prozesuei laguntzeko programaren** esparruan.

Bitartekaritza artistikoko proiektua da, eta publiko berriak sortzea eta bertako artisten lana zabaltzea du xede. Artoteka plataformak artelanen mailegua eta bitartekaritzako jarduerak eskaintzen ditu sortzaileekin, artea eguneroko bizitzara eta era askotako ikuslerengana hurbiltzeko. Gaur egungo artea zabaldu eta ezagutzera emateko modu berriak sortzeko, arte garaikidearen eta sare sozialen arteko lotura-bideak eratzeko eta artisten ekonomian eredu berriak bultzatzeko dagoen beharra izan da proiektuaren sorburua.

Nola funtzionatzen du?

Artotekak bertako hamar artistaren obra bilduma bat du, proiekturako bereziki diseinatu, bertako sorkuntza garaikidearen aniztasuna eta aberastasuna erakusten dituena. Bilduma hibridoa da, hainbat diziplinako lanak dituena (marrazketa, argazkia, pintura, eskultura, bideoa...), eta artisten intereseko gaiak ikusaraztea du helburu, artea beste jakintza-arlo batzuekin lotuz.

Erabiltzaileek obra horietako bat edo batzuk aukeratzeko dituzte beren etxeetan, lantokietan edo ikasketetan maileguan hartzeko. Maileguez 3 hilabeteko iraupena dute gutxienez, eta obrak Artotekako taldeak gainbegiratura garraiatzen eta muntatzen dira.

Mailegu bakoitza aktibatzeko, bitartekaritza-jarduerak diseinatu dira, espazioaren eta erabiltzaileen eta artisten beharren eta interesen arabera. Horrela, artisten eta komunitateen arteko topaguneak sortzen dira, artelanen eta haien esanahien inguruan taldean gogoeta egiteko.

Lanean. Prozesu artistikoak laguntzeko programaren helburua da artelanen ekoizpena babestea, eta, horretarako, ikusleen komunitateetara hurbiltzea, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez.



Urtarrilak 20 > Apirilak 11

Mediateka BBK

Erakusketako gunea (lehen solairua)

Parte hartzen duten artistak:

Belén Cerezo, Helena Gofí, Juana García, Mawatres, Raisa Alava, Raquel Asensi, Raquel Meyers, Saioa Olmo, Tunipanea, Victoria Ascaso



Urtarrilak 23, larunbata

Aurkezpena eta bisita gidatuak

10.30 - 12.00

Bisita gidatuak

12.00 - 13.00

Proiektuaren aurkezpena + jarduera

Informaizo gehiago eta izen-ematea:

azkunazentroa.eus



Deialdiak eta egonaldiak 2020-2021

2020an era askotako ekimenak daude, ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko, zuzeneko eta erakusketako arteen inguruan, artelaren ekoizpena bultzatzeko eta herritarrengana hurbiltzeko, hala egindako obra nola sorkuntzako prozesuak erakutsiz.

////////////////////////////////////
Oinarriak kontsultatu
azkunazentroa.eus
wegbunean

////////////////////////////////////

Dantza Garaikideko Egonaldia **2021eko apirilaren 4ra arte**

Azkuna Zentroak zabalik du [Dantza Garaikideko Egonaldiaren](#) deialdia, Rotterdameko (Herbehereak) Dansateliers sorkuntza- eta erakusketako-zentroarekin lankidetzan egina. Egoitza hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehena Azkuna Zentroan izango da, eta pieza koreografiko bat ikertzeko eta sortzeko prozesua jorratuko du.

Bigarrena Rotterdamen izango da, eta egoiliarak Dansateliers-eko taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango du eskura lana garatzeko. Aldi berean, Dansateliers Rotterdam-ek Holandako testuinguruari lotuta dagoen koreografo bat hautatuko du, antzeko ibilbidea egin dezan, deialdi honetan hautatutako egoiliararekin harremanean jarrita.

Praktika Artistikoetako Egonaldia

2021eko apirilaren 4ra arte

Azkuna Zentroaren [Praktika Artistikoen Egonaldiak](#) Kubako eta Euskadiko artisten arteko trukea sustatzen du, bi espazioetan ikerketa-aldi bat eginez, testuinguru artistiko

desberdinetan eta bertakoetan ikerkuntza eta lana bultzatzeko asmoz.

Deialdia apirilaren 4ra arte egongo da zabalik, Euskal Herriari lotutako lana eta ibilbidea duten artistei zuzenduta dago eta Carlos Garaicoa estudioak Habanan egiten duen [Artista x Artista](#) programarekin lankidetzan egiten da.

Bilbon aukeratutako pertsonak Kuban egingo du egonaldiaren lehen zatia, eta Azkuna Zentroan bigarrena. Aldi berean, Carlos Garaicoa estudioak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kubako artista bat hautatuko dute, eta horrek antzeko ibilbide bat egingo du, Bilboko artista egoiliararekin harremanetan jarrita, Zentroko egonaldian.

Komikiaren Nazioarteko Egonaldia

Laster, [Komikiaren Nazioarteko Egonaldia](#) abian jarriko da, [Québeceko Maison de la littérature](#)rekin eta [Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image](#)-rekin lankidetzan. Programa horren bidez, hiru egilek era bateratuan garatuko dituzte beren proiektuak hiru egoitzetan: Angoulême, Québec-en eta Bilbon.

HEZKUNTZA PROGRAMA

Asier Irazabal eta Hernán Quipildor

La llave del alma

Tailerra

Tailer honetan, *Asier Irazabal* eta *Hernán Quipildor* artistek *La llave del alma (Arimaren giltza)* lana aurkeztuko dute, *Fatxada Proiektua*. Diseinua, ilustrazioa eta komikia barruan egindako esku-hartzearen zati gisa (2020ko uda), haren sinbologiaren jatorria eta izateko arrazoia adierazi, eta eguneroko bizitzan aplikatzeko proposamenak egingo dituzte.

La llave del alma lana da artistak berrikuntza eta sormena partekatzeko asmoz garatzen ari diren *Aita* proiektuaren lehen adierazpen bisuala. Alde horretatik, *La llave del alma* lanak proposatzen duen hizkuntza sinbolikoa trebetasun enpatikoa eta arimaren teknologia garatzeko erabil daiteke, hamabi ikurren bidez. Sinbolo bakoitzak kontzeptu primario bat irudikatzen du, hala nola beldurra, aukera, espazioa, itxaropena, heriotza, denbora, gorrotoa, maitasuna, kontzientzia, izatea, argia eta esanahia. Sinbolo horiek erabili behar dira esanahi garbia duen hizkuntza batera iristeko, gizaki gisa elkar hobeto ulertzeko.

Artisten arabera, «sorkuntza-prozesuak harremanetan jartzen ditu beti hitzik ez dagoen leku batetik sortzen den idazlana eta idazlan hori laburbiltzen duten kontzeptuekin partekatzeko itzulpena. Proiektu hau ulertzeko modu baten proposamena da, proposamen integratzailea, bidea ematen baitu bata eta bestea gauza bera direla ulertzeko, bestea edozer dela ere. Ez da aski ulertzea, ulermena leku bateraino iristen baita, baina gero giltza bati eragin behar baitzaio».

Erabili Bilbao Bonua edo/
eta Kultura Bizkaia Aurrera
Bonua Az Infon sarrerak
erosteko

Urtarrila 26 eta 27
Asteartea eta asteazkena

18:00 - 19:30

Mediateka. TK202

20€ / 16€ Az Txartelarekin

Izen-ematea: Az Info eta
azkunazentroa.eus

Tailerra bereziki zuzenduta dago sormen-prozesuen intimitatearekin interesa duten entzule helduei. Tailerreko kontzeptuak lantzen dituen *El Gesto* liburua doan deskarga daiteke:

www.aita.media/the-gesture

Aurkezpenean eta parte-hartzaileen arteko elkarriketan lagunduko duten materialak emango dira.

 aita.media

  @thegesture_



La llave del alma. Fatxada Proiektua

Josune Urrutia Asua

Así me veo

Tailerra

Josune Urrutia Asua artistak *Así me veo (Honela ikusten dut neure burua)* tailerra emango du, *Fatxada* proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-ren esparruan. Izenburu bera duen liburutik abiatuta, autorretratuari ekitea proposatzen du, nork bere burua ezagutzeko prozesu gisa, eta marrazkiaren bidez nork bere burua begiratzeko esperientzia bitztea. Horretarako, artistak azaltzen duenez, «beharrezkoa da nork bere buruari baimena ematea prozesu honetan esperimintatzeko, jolasteko, aurkitzeko eta harritzeko».

Así me veo proposamenak gonbit egiten du autorretratuaren ideari buruzko behaketari, azterketari, gogoetari eta ekintzari ekiteko. «Lehen pertsonan egindako ikerketa- eta esperimintazio-prozesu sakon baten emaitza ere bada. John Berger-ek dioenez, 'Marraztea ez da soilik paperean neurtzea eta jartzea, jasotzea ere bai baita. (...) Marraztutako irudiak begiratzeko esperientzia biltzen du', azaltzen du artistak.

Tailerra mota guztietako jendeari zuzenduta dago, eta ez da beharrezkoa marrazkiei buruz ezer jakitea tailer honetan parte hartzeko.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

Otsailak 23 eta 24
Asteartea eta asteazkena

17:30 - 19:30h
Mediateka. TK202

30€ / 25€ Az Txartelarekin

Izen-ematea: Az Info eta
azkunazentroa.eus

 josuneurrutia.com

 [josunene](https://www.instagram.com/josunene)

  [@mirardibujando](https://twitter.com/mirardibujando)



Leire Urbeltz

La probabilidad de un entre
Tailerra

Leire Urbeltz ilustratzaileak *La probabilidad de un entre (Bitarte baten aukera)* tailerra proposatzen du Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia barruan.

Ez artea eta ez ilustrazioa, laborategi bat da hau, marrazkian oinarrituta sortzeko leku gisa 'bitarte'ko espazio bat jorratzeko bokazioa duen tokia. Bazterketaz bazterketa eraikia dirudien mundu batean, *La probabilidad de un entre* lasaitze proposamen moduko bat da, non segurtasun eza eta nahasmena besarka daitekeen balizko ilustrazio hedatu batekin esperimendu ahal izateko.

Helburua, beraz, ilustrazioaren hizkuntza bera zalantzan jartzea da, bere baitan hartuko gaituen murgiltze espazio bat sortzeko gai den objektu gisa ulertuta. Hau da, haren instalazio-izaera bere aplikazioetatik harago esploratzea, museoaz edo argitaletxeaz kanpoko gailuak integratzean eta jabetzean oinarrituta, jolas egiteko, eta gure lana erakusteko nahiz ikusarazteko.

LEIRE URBELTZEK ilustrazio hedatua deitutakoaren mugak ikertzen ditu lanean. Haren lanetan hedatu egiten da, nola maila formalean, hala kontzeptualean, sorkuntza garaikidearen konplexutasuna saihesten duten formula murriztaileak ezabatzeraz. Hala, bada, Urbeltzen lana etengabe lekualdatzen koka dezakegu, hau da, ez dela bere horretan dauzkan aukeretako batean ere egonkortzen.

Erabili Bilbao Bonua edo/ eta Kultura Bizkaia Aurrera Bonua Az Infon sarrerak erosteko

////////////////////
Martxoak 2, 3 eta 4
Asteartea, asteazkena eta osteguna

17:00 - 19:30

Mediateka. TK202

30€ / 25€ Az Txartelarekin

Izen-ematea: Az Info eta azkunazentroa.eus

////////////////////
 @leireurbeltz

 @Leireurbeltz1985



Leire Urbeltz

Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

Hotsetan. Azkuna Zentroko musika esperimentaleko eta soinu-arteoko programa

Tailer teoriko eta praktikoa, non era ludiko eta atseginian, musika esperimental eta soinu-arte garaikidea hurbilduko die gazte eta nerabeei, XX. mendeko mugimendu eta artista garrantzitsuenetik, soinu eta pertzepzioak plastikoki esperimentatzera.

Saio horiez gain, irakasleentzako musika esperimentalaren gida berria dago, laster azkunazentroa.eus-en deskargatu ahal izango dena. Ikasgeletan jarduerak egiteko baliabideen eskuliburu da, adin-tarte desberdinetara egokitutako eduki eta praktikekin. Eskuliburu honek aukera ematen du musika- eta soinu-esperimentazioaren mugimendu eta ordezkari garrantzitsuenengana hurbiltzeko, XX. mendearen hasieratik gaur egun arte, soinuarekin eta haren pertzepzioarekin plastikoki esperimentatzeko.

Oier Iruretagoienak gidatuko ditu saioak.

OIER IRURETAGOJENA (Erreterria, 1988) musika esperimentalean hasi zuen bere ibilbidea, eta beste formatu batzuetara irekitzen joan da gero, hala nola eskultura, testu edo bideo-lanetara. Arte Ederretan lizentziatu zen EHU'n 2011n, eta 2018an Bruselako WIELS erresidentzia programan parte hartu zuen. Bakarkako erakusketak egin ditu Bilboko Carreras Mugica galerian, Bartzelonako Halfhouse espazioan eta Gasteizko Montehermoso Kulturunean, besteak beste. Dantza, antzezlan, irrati emanaldi eta ikusentzunezkoetarako soinu bandak ere konposatu izan ditu, eta Bilboko 'Le Larraskito Klub'eko koordinatzaileetarikoa bat da 2010etik.

IKASTETXEEKIN
ITUNDUA

////////////////////
Martxoak 1 > 5
Martxoak 8 > 12
Astelehena > Ostirala

11:00 - 13:00
Lantegia 1. LAB 2

Hikuntza: Euskara eta
gaztelania
15-30 urte

////////////////////////////////////



Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

Datozen argitalpenak:



Izenburua:
Akromatikoa. Partida Hilezkorra
Hizkuntzak:
Euskara, gaztelania, ingelesa
28€

Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida Hilezkorra

Mabi Revuelta (Bilbo, 1967) artistaren *Akromatikoa. Partida Hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako (Madril, 1969), eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko apirilaren 11ra) eta Madrileko Tabacalera Promoción del Arte espazioak (2021eko bigarren hiruilekoa) elkarrekin ekoiztako erakusketa. Katalogoa 'erakusketa hedatua' da; bertan, erakusketaren hiru zatiak erreproduzitzen dira, eta atzera begirako atal bat du, Mabi Revueltaren ibilbide artistiko osoko 40 artelan baino gehiagoren fitxa katalogafikoak aurkezten dituena.

Susana Blasen saiakera kuratorialarekin batera, xakean aditu [Antonio Gudek](#) eta arte garaikideko kritikari eta teoriarari [Luis Francisco Pérezek](#) idatzitako testuak agertzen dira.



26€

Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbao. Ardo-biltegia izatetik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa izatera

Bilbok beste alondegia batzuk izan zituen, zerbitzu guztiak eraikin berean zentralizatu aurretik 1909tik aurrera. Ikerketa-liburu honek barnean biltzen du ehun urtetik gorako bizitza gorabeheratsu eta interesgarri hori, Mikel Bilbao Salsidua eta Arantxa Pereda Angulo arte-historialariak aztertu dutena.

Argitalpen honen ardatza dira Ricardo Bastidaren Udal Alondegiaaren proiektuaren aurreko egoera eta arkitektoak Bilboko hiria garatzeko izan zuen interesa. Era berean, 60ko hamarkadan itxi ondoren izandako proiektuak eta erreformak aztertzen ditu, Phillipe Starcken proposamena eta Bilboko egungo Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroaren sorrera ondorio izan zituztenak.



Bi liburu horietako bat aldeztik aurretik erosi nahi baduzu, eskatu, mezu elektronikoko bat bidalita info@azkunazentroa.eus helbidera, eta harremanetan jarriko gara zurekin.

Salgai:



Ana Laura Aláez.
Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

20€

ISBN: 978-84-451-3832-8

Ezaugarriak:

230 x 167 mm / 323 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa
Katalogo / Liburua

19€

ISBN: 978-84-09-14258-3

Ezaugarriak:

230 x 160mm

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



Ikuspegi feministak produkzio artistikoan eta arte teorietan ikastaroaren 11. edizioa

18€

Ezaugarriak:

164 x 230 mm / 417 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



Angela de la Cruz. Homeless
Katalogo / Liburua

35€

ISBN: 978-84-09-08967-3

Ezaugarriak:

200 x 270 mm / 159 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania, ingelesa



El Contrato. Bulegoa z/b

21€

ISBN:

978-84-608-4972-8 (eus-gaz)

978-84-608-4973-5 (ing-gaz)

Ezaugarriak:

220 x 165mm / 304 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara / gaztelania

Ingelesa / gaztelania



Maria Luisa Fernández.
Je, je... luna

21€

ISBN: 978-84-608-1518-1

Ezaugarriak:

290 x 215mm / 136 orrialde

Hizkuntzak:

Euskara, gaztelania



Azkuna Zentroa argitalpenak [dendAZ](http://dendAZ.com), [Azkuna Zentroaren Saltokian](http://AzkunaZentroarenSaltokian.com) eta dendaz.azkunazentroa.eus-en erosi ditzakezu

Espazio eta programazio irisgarriak

«Behar ez badituzu, agian ez dituzu nabarrituko, baina behar badituzu, hor daude». Clare Barlow kuratorearen esaldiak ondo islatzen du zer izan behar duen espazio eta programazio irisgarriak. Kultura eskubide bat da, eta haren sarbide unibertsala bermatzea erantzukizun bat da Azkuna Zentroarentzat eta haren modukoentzat; Zentroan gauzatzen diren kultura- eta sorkuntza-prozesuen garapenean neurri integratuak sustatu eta abiarazi behar baititu.

Eta horrek ez du soilik esan nahi oztopo arkitektonikorik gabeko eremu bat behar denik, parte-hartzea mugatu dezaketen eremu sentsorialak ere hartu behar baitira kontuan.

Zentroak audiogidak ditu erakusketak entzuteko, soinu-begiztak zinema-programazioaren xehetasunik ez galtzeko, irakurketa errazeko programak literaturaz gozatzeko gaitasun guztietatik, bisita gidatuak ikusmena ez ezik ukimena ere

erabiltzen dutenak... Era berean, duela hamar urte ireki zenetik, beste neurri batzuk ere ezarri dira, hala nola areto batzuetako altzariak aldatzea, [Jarduera Fisikoko Zentroan](#) igogailu berriak jartzea edo off line eta online komunikazioa hobetzea. Irisgarritasuna ere lehenetsunezkoa izan da [Mediateka BBK](#)-ren oraintsuko berrikuntzan. Esku-hartzeen artean, nabarmentzekoa da Atariko puntu batzuetako argiztapena hobetu dela.

Espazioaren eta programazioaren etengabeko hobekuntzan dihardu Azkuna Zentroak. Gaur egun, Zentroa ahaleginean ari da [ISO 17001](#) araua lortzeko, irisgarritasun unibertsalaren kudeaketa-sistema ziurtatzen duen Europako araua, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetekoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu, eta kultura baldintza berdinetan esperimendu, partekatu eta gozatzeko aukera izan dezaten.



AGENDA

AGENDA / URTARRILA

URTARRILAK 31 ARTE (2020ko abenduaren 3tik) +INFO

Ordutegia kontsultatu	Mario Paniego <i>Espacio públic(itari)o</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	24. orr.
-----------------------	--	----------------------------	----------

URTARRILAK 31 ARTE (hilabete osoan zehar) +INFO

Ordutegia kontsultatu	Transbiótica Bilbao - Sorkuntza Kolektiborako Gailua (SKG)	KULTURA DIGITALAK	47. orr.
-----------------------	--	-------------------	----------

OTSAILAK 21 ARTE (2020ko azaroaren 19tik) +INFO

Ordutegia kontsultatu	Iván Gómez <i>La Prospección de Kairós</i> 3. kapitulua: <i>Las ruinas del momento</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA-PROIEKTUA	20. orr.
-----------------------	--	--------------------------------------	----------

MARTXOAK 1 ARTE (2020ko abenduaren 15tik) +INFO

Ordutegi librea (fatxada)	Josune Urrutia Asua <i>Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer</i>	ARTE BISUALAK / INTERBENTZIOA	26. orr.
---------------------------	--	-------------------------------	----------

APIRILAK 11 ARTE (2020ko urriaren 14tik) +INFO

Ordutegia kontsultatu	Mabi Revuelta <i>Acromática. Una Partida Inmortal</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	18. orr.
-----------------------	--	----------------------------	----------

URTARRILAK 13 / Asteazkena +INFO

17:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Accattone</i> (1961)	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
-------	---	---	----------

URTARRILAK 14 / Osteguna +INFO

19:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Accattone</i> (1961)	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
-------	---	---	----------



URTARRILAK 19 / Asteartea +INFO

18:30	Sra. Polaroiska <i>Emakume jakintsuen kontseilua</i>	ARTE BISUALAK / TOPAKETA	22. orr.
-------	---	-----------------------------	----------

URTARRILAK 20 / Asteazkena +INFO

17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il Vangelo secondo Matteo</i> (1964) <i>Ebanjelioa Mateoren arabera</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
-------	--	--	----------

URTARRILAK 21 / Osteguna +INFO

18:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il Vangelo secondo Matteo</i> (1964) <i>Ebanjelioa Mateoren arabera</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
19:00	Mal Pelo <i>On Goldberg Variations / Variations</i>	ARTE BIZIAK / DANTZA	30. orr.

URTARRILAK 27 / Asteazkena +INFO

17:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Uccellacci e uccellini</i> (1966) <i>Txoritxoak eta txoritzarrak</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
-------	---	--	----------

URTARRILAK 28 / Osteguna +INFO

19:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Uccellacci e uccellini</i> (1966) <i>Txoritxoak eta txoritzarrak</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	40. orr.
19:15	La Nuit des Idées (Ideien gaua) <i>Un planeta (en) vivo - Cercanos</i>	GIZARTEA	48. orr.

URTARRILAK 30 / Larunbata +INFO

12:00	Paulino Viota <i>Contactos. Mayo de 1970</i> (1970)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	46. orr.
-------	--	----------------------------------	----------

AGENDA / OTSAILA

OTSAILAK 21 ARTE (2020ko azaroaren 19tik) +INFO			
Ordelegia kontsultatu	Iván Gómez <i>La Prospección de Kairós</i> 3. kapitulua: <i>Las ruinas del momento</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA-PROIEKTUA	20. orr.
MARTXOAK 1 ARTE (2020ko abenduaren 15tik) +INFO			
Ordelegi librea (fatxada)	Josune Urrutia Asua <i>Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer</i>	ARTE BISUALAK / INTERBENTZIOA	26. orr.
APIRILAK 11 ARTE (2020ko urriaren 14tik) +INFO			
Ordelegia kontsultatu	Mabi Revuelta <i>Acromática. Una Partida Inmortal</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	18. orr.
OTSAILAK 3 / Asteazkena +INFO			
17:30h	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Edipo Re (1967) Edipo errege</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
OTSAILAK 4 / Osteguna +INFO			
19:00h	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Edipo Re (1967) Edipo errege</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
OTSAILAK 4TIK 6RA / Ostegunetik larunbatera +INFO			
Ordelegia kontsultatu	Amalia Fernández <i>Expografía retrospectiva</i>	ARTE BIZIAK / PERFORMANCE	32. orr.
OTSAILAK 9 / Asteartea +INFO			
18:30	Blde0tik Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 1. saioa: <i>Aquí y allá</i> (2019), <i>Beyond the glacier</i> (2019), <i>Yo fui Anderssen</i> (2019), <i>Vencejos</i> (2020)	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	43. orr.



OTSAILAK 10 / Asteazkena			+INFO
17:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Teorema</i> (1968)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
18:00	Eraeran + Myriam RZM + Matias Riquelme & Fernando Ulzi3n + Mudoh Kontzertua	ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA	34. orr.
OTSAILAK 11 / Asteazkena			+INFO
19:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Teorema</i> (1968)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
OTSAILAK 16 / Asteartea			+INFO
18:30	Bldet3tik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 2. saioa: <i>Cavalo</i> (2020)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	44. orr.
OTSAILAK 17 / Asteazkena			+INFO
17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Medea</i> (1969)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
OTSAILAK 18 / Osteguna			+INFO
18:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Medea</i> (1969)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	41. orr.
OTSAILAK 23 / Asteartea			+INFO
17:30	Tailerra Josune Urrutia Asuarekin <i>Asi me vea</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA/ ARTES VISUALES	62. orr.
18:30	Bldet3tik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 3. saioa: <i>Syria</i> (2018), <i>Jo ta ke</i> (2020), <i>Espero</i> (2019)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	44. orr.

AGENDA / OTSAILA

OTSAILAK 24 / Asteazkena			+INFO
17:30	Tailerra Josune Urrutia Asuarekin <i>Así me veo</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA/ ARTES VISUALES	62. orr.
17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il Decameron (1971) Dekameron</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.

OTSAILAK 25 / Osteguna			+INFO
18:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il Decameron (1971) Dekameron</i>	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.

AGENDA / MARTXOA

MARTXOAK 1 ARTE (2020ko abenduaren 15tik)			+INFO
Ordu-tegi librea (fatxada)	Josune Urrutia Asua <i>Breve diccionario enciclopédico ilustrado de MI cáncer</i>	ARTE BISUALAK / INTERBENTZIOA	26. orr.

APIRILAK 11 ARTE (2020ko urriaren 14tik)			+INFO
Ordu-tegia kontsultatu	Mabi Revuelta <i>Acromática. Una Partida Inmortal</i>	ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA	18. orr.

MARTXOAK 2 / Asteartea			+INFO
17:30	Tailerra Leire Urbeltzekin <i>La probabilidad de un entre</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA/ ARTE BISUALAK	63. orr.
18:30	Blde0tik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 4. saioa: <i>Mudar la piel</i> (2018)	ZINEMA ETA IKUS- ENTZUNEZKOAK	44. orr.

AGENDA / MARTXOA



MARTXOAK 3 / Asteazkena			+INFO
17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>I racconti di Canterbury</i> (1972) <i>Canterburyko ipuinak</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
17:30	Tailerra Leire Urbeltzekin <i>La probabilidad de un entre</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA/ ARTE BISUALAK	63. orr.
MARTXOAK 4 / Osteguna			+INFO
17:30	Tailerra Leire Urbeltzekin <i>La probabilidad de un entre</i>	HEZKUNTZA PROGRAMA/ ARTE BISUALAK	63. orr.
18:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>I racconti di Canterbury</i> (1972) <i>Canterburyko ipuinak</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
19:00	Camila Téllez <i>Transición primaveral</i> -en proiektzioa eta solasaldia Aimar Arriolarekin	ARTE BISUALAK / PROIEKZIOA ETA TOPAKETA	28. orr.
MARTXOAK 9 / Asteartea			+INFO
18:30	Blde0tik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 5. saioa: <i>Un día normal</i> (2019), <i>Pirate boys</i> (2018), <i>A month of single frames</i> (2019), <i>ID copy</i> (2020)	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	45. orr.
MARTXOAK 10 / Asteazkena			+INFO
17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il fiore delle mille e una notte</i> (1974) <i>Mila gau eta bat gehiago</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.
MARTXOAK 11 / Osteguna			+INFO
18:30h	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Il fiore delle mille e una notte</i> (1974) <i>Mila gau eta bat gehiago</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	42. orr.



MARTXOAK 13 / Larunbata

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Loraldia Festibala 2021	ARTE BIZIAK	48. orr.
-----------------------	-------------------------	-------------	----------

MARTXOAK 16 / Asteartea

+INFO

18:30	Blde0tik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira 6. saioa: <i>Meseta</i> (2019)	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	45. orr.
-------	---	------------------------------	----------

MARTXOAK 17 / Asteazkena

+INFO

17:00	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Salò o le 120 giornate di Sodoma</i> (1975) <i>Salò edo Sodomako 120 egunak</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
18:00	Eraeran + Jana Jan + EC + Killerkume <i>Concierto</i>	ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA	36. orr.
Ordutegia kontsultatu	Festival Loraldia 2021	ARTE BIZIAK	48. orr.

MARTXOAK 18 / Osteguna

+INFO

18:30	Pier Paolo Pasolini. Poesia zinema egina <i>Salò o le 120 giornate di Sodoma</i> (1975) <i>Salò edo Sodomako 120 egunak</i>	ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA	43. orr.
-------	--	---	----------

MARTXOAK 20 / Larunbata

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Festival Loraldia 2021	ARTE BIZIAK	48. orr.
-----------------------	------------------------	-------------	----------

MARTXOAK 23TIK 27RA / Ostegunetik larunbatera

+INFO

Ordutegia kontsultatu	Gutun Zuria 2021/2020. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia	LITERATURA	8. orr.
-----------------------	--	------------	---------

INFORMAZIO OROKORRA

ZENTROAREN ORDUTEGIA ALARMA-EGOERAN

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuen programaren bidez, Alhóndigaren historiaren eta haren eraldaketaren berri jakin daiteke, bai eta Zentroan dagoen kultura-programazioa ere.

BANAKAKO BISITAK:

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00

Osteguna (euskaraz), 19:00

Bisita dohainik da, 30 minutuko iraupena du, eta gutxienez 3 eta gehienez 5 lagun behar dira egin ahal izateko.

TALDEKAKO BISITAK:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 5 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50€koa da (25€ elkarteentzat).

Informazioa eta erreserbak, gutxienez 48 ordu lehenago: Az Infor eta 944 014 014 telefonoan, edo info@azkunazentroa.eus posta elektronikoa.

Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetzekoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

AZKUNA ZENTROA, GUNE SEGURUA

Azkuna Zentroak **Bureau Veritas-en Global Safe Site ziurtagiria** du, zeinak bermatzen baitu behar bezala betetzen direla Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk), Osasun Ministerioak eta beste osasun-agintari batzuek COVID-19ari aurre egiteko ezarritako segurtasun-neurriak, garbiketa-protokoloak eta babes pertsonaleko eta antolakuntzako neurriak. Gainera, Zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziazio-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baina lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukieria errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:

